

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko maiatzaren 14a / 673. zenbakia



HIRUGARREN ADINEKOEN SEXUALITATEA
SEXOLOGIA ZERBITZUA ERRETIRATUEKIN LANKIDETZAN

ORAIN ETA HEMEN: 20 URTE KARTZELAN/7 • KIROLA: DOMEKAN, AUKEA SARIAK/8

arrasate musikal

Matrikulazio epea zabalik:
Maiatzaren 18tik
ekainaren 18ra arte.
Arratsaldeko 5etatik 8etara.

Berritasunak:

4 urtetik aurrera. - Gaita
Helduentzako eskolak. - Harmonia modernoa



BODY JAM

AEFA / Body Training Systems



IRUDI SPORT

Uarkape 2, behea. ARRASATE.

Tel.: 943 77 20 87

irudisport@telefonica.net

Ordutegia: 07:30 - 21:30

BODY JAM jai ikaragarria da!

BODY JAM hainbat mugimendu eta estiloren nahasketa zoragarria da: funka, groovea, erritmo latindarrak, karibetarrak, street dancea, technoa, hip-hopa, discoa, jazz...


BODY JAM esperientzia ikaragarria da. Dantza, musika, mugimendua eta jai-giroa... Guztia batean!

BODY JAM edonork egin dezake, ondo pasatzea gustuko ez dutenek bakarrik dute debekatuta.

Berriro ere, lehenak gara!

Body-pump / Body-combat / Body-balance / Spinning
Tonifikazioa / Mantenimenduko gimnasia / Funka eta
hip-hopa / Masajista osteopata / Solarium / Sauna

KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu Eusko Jaurlaritzak ajedrezakin hartu dauen erabakixe?



ESTEBAN OTADUI
Langillie



ZORAIDA DE SANCHA
Langillie



MONTSE HERNANDO
Langillie



IÑAKI BARRENA
Langillie



PETRA MARI INDA
Langillie



HARITZ ARREGI
Langillie

Ez dot ondo ikusten. Ez dot uste saskibaloien moduko deportie danik, baiñe ez neuke deporte moduen kenduko. Gauzak kentzie ez da ona izeten; kalte egitteko bada, dauen moduen itxi.

Ba, ez dakit ze pentsau. Ez dot uste deportie danik, baiñe ez dauket oso argi. Ajedrezien jokaketiek esfortzue eskatuko dau, baiñe deportie dala... Ondo begittu biher daue hori.

Oin arte deporte moduen egon bada zergaittik kendu biher daue? Dirulaguntza barik geraketan badie mesede txikiñe egin biher dutzie ajedrezai. Dauen moduen itxi daixela.

Erabaki horren atzian arrazoi ekonomikuek dauz, besterik ez. Neuk ez dot esango kirola dan edo ez, baiñe nazioartien daukon errekonozimentuek asko esaten dau bere alde.

Neuk uste dot kirola dan edo ez aitzakixe hutse besterik ez dala. Diru problemak badauz, esan daixela argi, baiñe ez daukie zertan esan ajedreza deportie ez danik. Deporte klase asko dauz.

Neuk uste dot Eusko Jaurlaritzak egin dauena ton-tokerixa haundixe dala. Polemikie sortu, besterik ez dau egin. Holako erabakiek ez die onak gauzak bulzaketako.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK BALDOSA 'MUGIKORRAK' Aurtengo negua luzatu egin dela dirudi, ia ez dugu izan-eta udaberririk. Euria barra-barra egiten dabil eta giro umel eta hotza dugu. Horren harira, irakurle batek gogoratu gura du herriko hainbat baldosa kili-kolo daudela, eta euria egiten duen bakoitzean horietako bat zapalduz gero, blai eginda gera zaitezkeela. Udalarari eskatu dio horiek lehenbailehen konpontzeko.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN/6

KIROLA /8

KULTURA /10

Jesus Larrañaga

Joan den zapa-tuan kooperatibetako sortzaile Jesus Larrañagaren hileta-meza egin zuten.

Bihar, futbol derbia

Bergarak eta Mondrak derbia jokatu dute bihar arratsaldetan Agorrosin futbol zelaian.

Kontzertu pedagogikoa

Astelehenean, Arrasateko Musika Eskolak kontzertu pedagogikoa egingo du Amaia antzokian.

ASTEKODATUA

767

LAGUNEK BABESTU DUTE HERRITARREN ZERRENDA

Joan den astean Herritarren Zerrenda Europako hauteskunderetan aurkezteko sinadurak batu zituzten. 767 lagunek babestu zuten taldea, eta gehienak azkeneko egunean joan ziren.

BESTEKEKESANA

Manipulazioa. Hedabide 'orobaliodun'-en erresuma ero bezain mundialean gaude galduta, gero

eta sentsazio beltzago batek jota. Aitortu behar dut nazka eragiten didala informazioaren gaineko manipulazioak. Eguneroko egiaztapenak aholkatzen dit hobe nukeela erabateko muzina egingo banie hainbat komunikabideri. Osasunez irabaziko nuke, bederen. (...) Iluntasuna ez da hitz egokia, hedabide askoren erabilera gaiztoa mugatzeko. Ez. Motz geratzen zaigu. Beldurra, txantajea, zaintza, inkontrolatu bezain ilegala, isiltasun lazgarria... Dena da erabilgarri kritikei ekiditeko eta boterearen probetxua elikatzeko. (...) Nik ez dakit lehen baino gehiago ote dakidan. Sinetsi, ordea, askoz gutxiago egiten dut"

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL
'ARGIA'/04-05-16

HERRITARRENBERBAK/ Asier Zubizarreta



Zast!

Dantzaldia hasi da honezkeroko Printze Urdinaren jauregian baina Mari Errauskinek etxeko zoruak garbitzen dihardu aiena batean, gizartea. Halako batean ez zaio ba maitagarria agertu! Makilatxo miragarria astindu eta zast! hara kalabazak karroza, hara saguak zaldi! Hor doa neskatxa pinpirina, ipurdia galdu beharrez, jauregiko bidean gora.

Handia da ba, berriz ere zaborraz hitz egitera natorkizu, irakurle maitea. Izan ere, zaborraren garaian bizi gara. Setaz eta tulez egindako, urrezko hariz jositako, perlaz eta farfailez apaindutako soinekoa harraskatu eta hor azalduko zaizu azpian, ugerra eta zarpaila.

Egungo bizimolde xelebrea dela eta zabortegeiek gainezka egin duten honetan, errauste-planta bi egitera doaz gure Gipuzkoa txikian. Makilatxo miragarriaz datoz hondakinen arazoa konpontzeko asmoz.

Zast! egin eta hara kaka ke egina, airean desegina. Bejondeizuela! Zertan aldatu orduan gure eguneroko jarduna? Bizi gaitezen ur gaineko bitsetan eta kanta beza Donostiako Orfeoioak martxa triumfala Kiotoko plazan.

Dioxinak eta furanoak;

amaorde gaiztoa eta alaba zatarrak. Biztanleak lasaitze aldera, herritarren eta eragile sozialen partehartzea bidertzeko tailerrak antolatzea ei doaz. (Eibar-Gasteiz autopistaren auzia gogoratzen?).

Bertan, Amen esaten

ikasteko eskola trinkoak emango dira. Gutxi balitz, foru aldundikoez filtro magikoak jarriko dituzte tximinietan, gipuzkoarron osasuna babesteko. Aizu, eta errauts toxikoekin zer? Motel, Aladinoren sistema erabiliko diagu, lanpara miragarria igurtzi eta listo, hautson ezta lorratzik ere!

Orduan Aldundiko diputatu jaunak, ortozik, kristalezko zapatatxoa hankan sartu du eta propio geratu zaio.

"Makilatxo miragarria astindu eta zast! hara kalabazak karroza, hara saguak zaldi!"

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martinez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 14**
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30
- ZAPATUA, 15**
Azkoaga, Ferrerías 1. 943 79 15 15
- DOMEKA, 16**
Azkoaga, Iturriotz 17. 943 79 79 99
- ASTELEHENA, 17**
Corcuera, Maisu Aranbarri 1. 943 79 22 26
- MARTITZENA, 18**
Iñizar, Erguin 11. 943 79 12 39
- EGUAZTENA, 19**
Amezua, Santamarina 32. 943 79 09 74
- EGUENA, 20**
Español, Araba etorb. 14. 943 79 18 65
- EGUBAKOITZA, 21**
Ruiz, Maala 31. 943 79 14 09

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Igualetoia. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Delak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelenehena egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

- Arrasate**
Astelenehena egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak. 943 03 53 11
• Ikuskatzailea. 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate. 943 79 71 99

- SUHILTZAILEAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
. 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) Santa Marinako eliza Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz) Domeka 12:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	

OHARRAK

MUSAKOLAKO JAIK
Musakolan San Isidro jaiak antolatu dituzte. Gaur, egubakoitza, bolo-boloa, danborrada, erretiratuen afaria eta dantzaldia egingo dituzte. Bihar, zapatua, lore erakusketa, meza, herri txikiteoa, puzgarriak, eta buruhandiak izango dira. Etzi, domeka, auzotarren gimnasia erakustaldia, Gorritiren animaliak eta buruhandiak izango dira.

AMNISTIAREN ALDE
Bihar, zapatua, manifestazioa egingo dute, 19:00etan, Seber Altubetik. Horren ostean, ekitaldi politikoa egingo dute gaztetxean, *Jon 23 urte kartzelan, Garratz 20 urte. Aski da!* leloarekin. Martitzenean, Etxeraten asteroko agerraldia egingo dute. Eguaztenean, amnistiaren gaineko berbaldia egingo dute, gaztetxean, 19:00etan.

SENTSIBILIZAZIO EKIMENAK
Bihar, zapatua, Gipuzkoako ikasleen gurasoen elkarteak kultura arteko sentsibilizazio jardunaldiak egingo ditu San Antolin eskolan, 10:00etatik 13:00etara.

LANBIDE HEZIKETA
Eguenean, Lanbide Heziketaren gaineko mahaingurua egingo dute San Viator Haundi gunean, 18:00etan.

AEDren AGENDA

EUSKALGINTZAREN KAMISETAK
Euskararen gizarte erakundearen kontseilua kanpaina bat bultzatzen dabil *Hizkuntza eskubideak, denon konpromisoa* leloarekin. Kamisetak atera dituzte, eta AEDn daude salgai, 20 eta 22 eurotan.

ARRASATE LEHIAKETAK
Iazko irabazleen lanekin osatutako liburuxkak eskuragarri daude AEDn.

URBANOEN ORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Epele-Kanpanzar errepidea zabalik

Epele eta Kanpanzar bitarteko errepidea inauguratu zuten. Errepideak bost kilometro ditu, eta hiru errei. 1992an hasi ziren bidea egiten, eta eguraldi txarraren eta lur-jausien eraginez, 1994ko maiatzean bukatu zuten. Guztira, 1.500 miloi pezeta kostatu zen.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Bolo-bolo"



— *Bolo-bolo dabil herrixan droga asuntuan sartuta dagona.*

GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Gaixotasun arraro bat izango dugu hizpide

Sonia Coto arrasatearrak gaixotasun ezezagun samarra du, narkolepsia, eta horrek kataplejia ere eragiten dio. Narkolepsiak logura eragiten dio, eta kataplejiaren eraginez, berriz, ezin du barerik egin, bestela eskuetan edo masailezurrean ahultasuna sentitu eta lurrera jausten da, konortea galdu barik. Soniarekin berba egin dugu, eta zapatu eta domekan errepikatuko dugu. Cotok uste du ibarrean izango dela gaixotasun hori duen norbait, eta elkarte bat sortu gura du.

'Egonaldiak familia euskaldunetan'

Astelenean, 11:00etan, *Egonaldiak familia euskaldunetan* programaren gainean egingo dugu berba. Antolatzaileekin izango gara, eta Bergarako lagun bati, Julian Beitiari, elkarrizketa egingo diogu, programan esku hartzen du-eta. Eguenean, berriz, *Kontu kontari* atalean, herrian zegoen argazki zaletasuna hizpide izango dute Eusebio Iñarra eta Espe Lizarralde. Aurreko baten ere mintzatu ziren horretaz; hala, oraingoan gehiago.

HAUGIROA!

MINIMOA Domeka, 9	5 °C
MAXIMOA Domeka, 9	16 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	50,7 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 5	12 °C 6 °C 18,6 l/m²
Eguena, 6	12 °C 6 °C 11,7 l/m²
Egubakoitza, 7	12 °C 6 °C 13,8 l/m²
Zapatua, 8	15 °C 6 °C 0,2 l/m²
Domeka, 9	16 °C 5 °C 4,7 l/m²
Astelehena, 10	13 °C 8 °C 0,3 l/m²
Martitzena, 11	15 °C 10 °C 1,4 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- EGUBAKOITZA**
19:10 Planning Prest
- ZAPATUA**
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak: Sonia Coto; Mari Vega eta Jose Mari Arana, egin berri duten Donajakue bidez; Africa Bibang, abeslaria...
- DOMEKA**
10:00 Asteko albisteak
10:15 Asteko elkarrizketak
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
10:00 Euskadi Irratiko albistegia
10:06 Igo Autobusera magazina: etimologiak, elkarrizketak, kirolak...
11:00 Euskadi Irratiko albistegia
11:06 Igo autobusera magazina
11:30 Arrasate Irratiko albistegia
11:40 Igo autobusera magazina
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
17:00 Izarren ordua.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra
- MARTITZENA**
19:10 Iluntzean Xabier Euskitze
- EGUENA**
19:10 Noraezean

ASTEABIHITZETAN

Zeramikagileen jaia

Azkeneko egunotan Zeramikagileen jaia egin dute Arrasaten. Eta, jai horren egitarauaren barruan, zapatua egun garrantzitsua izan zen; Euskal Herriko zeramikagileak izan ziren Monterongo parkean, euren lanak erakusten.

Orain dela bi urte aurkikuntza garrantzitsua egin zuten, Uribarri auzoko Telleria baserrian antzinako labea aurkitu zuten-eta. Eta, antzinako zeramika ezagutarazteko sortu dute Zeramikagileen jaia.

Istripu ikusgarria saihebidetan

Eguen goizean, 08:00etan, istripu ikusgarria izan zen Arrasateko saihebidetan. Zorionez, baina, ez zen zauritu larririk izan. Seat Malaga, Renault Clio eta Ford Galaxi autoek elkar jo zuten, eta kolpearen ondorioz Ford Galaxy autoa irauli egin zen. Auto bakoitzean gazte bana zihoan, bi gizonezko eta emakumezko bat, baina ez zitzaizen ezer gertatu.

Istripuak auto ilara luzeak eragin zituen. Bergarako noranzkoan auto ilara Hiper Eroskiraino iritsi zen. Aretxabaletarako noranzkoan ere auto ilara luzea izan zen.

Osasun etxeak euskalduntzeko kale bilkura

Zapatuan, Euskal Herrian Euskaraz taldeak kale bilkura egin zuen Eskualde Ospitalearen aurrean. Izan ere, EHE taldeak uste du Euskal Herriari ezarri dioten zatiketa administratiboak euskarak egoera juridiko ezberdina izatea dakarrela. Ondorioz, EHE taldearen esanetan, hizkuntza eskubideen urraketak izaten dira, baita osasun esparruan ere.

Eta, hori salatzeke egin zuten kale bilkura zapatuan. Egun, beste esparru askotan moduan, osasun esparruan euskaraz jakitea meritu gisa dago baloratua, eta EHEk uste du hori baino gehiago exijitu behar dela.



Euskalgintzaren ospakizuna, Uarkapen

Joan den egubakoitzean Euskalgintza osatzen duten talde eta elkarteek afaria egin zuten Uarkapen. Afarian izan zirenek ondo baino hobeto ezagutzen zuten elkar, baina egubakoitzean, batzarretan izaten dituzten formaltasunak alde batera utzi eta giro ezin hobean Euskalgintzak egindako ibilbidea ospatu ahal izan zuten.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Euskararen lekua bermatu

Aspaldian beste hainbat komunikabideetan Europako Batasunaren gaineke gaiei orrialde dezente ematen dabilta. Ez dakit kasualitatez edo ez, baina tarte honetan ere Europako kontuak gogora ekartzen nabil.

Hainbat herrialdek Europako Batasunarekin bat egin behar zutenean, hedabide baten azaldu zuten agiri

guztiak ehunka hizkuntzetera itzuli beharra zegoela; hala erabakita zuen Europako Batasunak berak.

Astean, ilusio bat dela ematen duen arren, Espainiako Estatuko gobernuak eskatu du Batasunean euskara, galiziera eta katalana onartuak izateko, eta horiek ere erabiltzeko aukerak bermatzeko. Ilusioak ilusio baino ez direnez,

Frantziako Estatuko gobernuak ez du hori onartu gura izan. Haren esanetan, frantsesa da bere lurraldean dagoen hizkuntza ofizial bakarra, eta beldur da, gainera, bretoiara eta korsikera ez ote dituen onartu beharko. Beraz, gaitz erdi!

Logikoa, baina harritzekoa da Espainiako Estatuko gobernuak hori eskatzea, baina bada zerbait. Ea pauso horrez gain, Estatuan bertan euskarari merezi duen ofizialtasuna ematen dion!

ASTEKOIRUDIA



AITOR LIZARRALDE

LAGUN MORDOA BATU ZEN JESUS LARRAÑAGARI AZKEN AGURRA EMATEKO

Joan den egubakoitzean, Jesus Larrañaga, Arrasateko mugimendu kooperatibistaren sortzaileetako bat, hil zen. Orain dela urte batzuk giltzurruneko transplantea egin zioten. Hala ere, orain dela gutxi arte lanean jarraitu zuen. Zoritxarrez, azkenaldian osasunez makal zegoen. Zapatuan egin zuten

hileta-elizkizuna San Frantzisko elizan, eta jende mordo bat batu zen Larrañagari azken agurra emateko, tartean debagoiendar ugari eta beste hainbat pertsona ospetsu. Lan handia egin du Larrañagak, eta, besteak beste, eskuotan duzuen aldizkariko kolaboratzaile ere izana da. Goian bego! /ARRASATE PRESS

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE. Tel.: 943 79 55 82

UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6
Pab.

Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

KOOPERATIBA/ Jesus Larrañaga hil da

Jesus Larrañaga, Arrasateko mugimendu kooperatibistaren sortzaileetako bat, hil da

UBANE MADERA

Joan den barikuan, hilak 7, hil zen Jesus Larrañaga, Arrasateko mugimendu kooperatibistaren sortzaileetako bat. Zapatuan egin zituzten hileta elizkizunak San Juan parrokiari. Herritar eta kanpoko askok bat egin zuten Jesus Larrañagari azken agurra egiteko.

Jesus Larrañaga Lizarralde Arrasaten jaio zen, 1926ko azaroaren 18an. Cerrajerako Aprestuzen Eskolan ikasi zuen lehenengo. Geroago, On Jose Maria Arizmendiarririk sortu zuen Eskola Profesionalean sakondu zituen ikasketak, peritu industrialari izateko. Hain zuzen ere, Eskola Profesionalean matrikulatu ziren hasierako 11 gazteen artean izan zen Jesus Larrañaga. Hala, 1946an hasi zituen ikasketak eta 1952an bukatu zituen. Hantxe hasi zen On Jose Maria Arizmendiarririk esanak barneratzen, eta hantxe ezagutu zituen lau urte geroago hasiko zuen abenturan parte hartu zuten bost lagunak.

On Jose Maria Arizmendiarririk pentasamenduan oinarrituta, Arrasateko aurreneko kooperatibaren sortzaileetako bat izan zen Larrañaga. Talleres Ulgor izena ipini zioten lantegi hari, egitasmoan parte hartu zuten bosten izenenen artean: Usatorre Luis, Larrañaga Jesus, Gorroñoigoitia Alfonso, Ormaetxea Jose Maria eta Ortubai Javier. 1956a zen. Arrasateko Laxarteko lurretan eraiki zuten aurreneko pabilioia: 750 metro koadro, bi solairutan banatuta.



Bizitza guztian jardun zuen kooperatibismoaren inguruan lanean; 77 urte zituela hil zen Jesus Larrañaga.

Hala ekin zion ibilbideari Arrasateko aurreneko kooperatibak, eta urte gutxitan esperientzia hori sendotzea lortu zuten. Fagor Etxetresna Elektriokoak etorriko zen laster, eta hortik aurrera, gaur egun MCC talde indartsuaren sustraiak izango zirenak.

Jesus Larrañaga Ulgor kooperatibako zuzendari komertziala izan zen 1955etik 1963ra bitartean. Eta urtebete geroago, Euskadiko Kutzaren zatiketarik sortu zen LKSn bost urtez jardun zuen lanean. Bestelako karguen artean, Fagor taldearen nazioarteko ope-

razioetako zuzendaria izandakoa da, MCCko aholkularia eta AENORreko sortzaile eta lehendakaria. Erretiratu eta gero jardun zuen azkeneko lan horretan.

Horrez gainera, eta beti ere, kooperatibaren inguruan, zenbait artikulu eta liburu idatzi zituen: *Interioridades de una Utopía*, adibidez. Eta orain dela gutxi bukatu zuen *Dilema del Cooperativismo en la era de la globalización*.

KOOPERATIBISMOA BERE HITZETAN

Oro har, hala laburbildu zuen Jesus Larrañagak kooperati-

bismoaren izaera: "Enpresa gizatiartzeko ideian oinarritutako esperientzia da, pertsona arduratsu eta solidarioek osatzen dutena eta komunitatean barneratura dagoena. Era berean, ekonomia konpetitiboan jarduteko gauza da. Oro har, konbentzionalismoa alboratu eta etika eta elkartasun handiagoa exijitzen duen bidea aukeratu dutenen esperientzia da".

Bizitza pertsonalean, Arrasaten bizi zen Jesus Larrañaga, ezkondu eta lau alaba zituen.

LABUR

Garagartzarren errekurtsioa Madril en dago

Fagorren eta Garagartzako auzotarren arteko auzia Madrilgo Auzitegi Goreneraino iritsi da. Kontua da Euskal Autonomia Erkidegoko auzitegi nagusiak auzotarren errekurtsioa onartu ostean, orain, Madrilgo auzitegiak hartu beharko duela azkeneko erabakia. Edozelan ere, luze joango da hori. Garagartzako auzo-alkate Karmel Uribarrenek Arrasate Irratiari esandakoaren arabera, Madrilgo auzitegiak urtebete-edo beharko du epaia kaleratzeko.

Arrasateko eskolek zenbait ekimen egingo dituzte

Gipuzkoako gurasoen elkarteak antolatuta, bihar zapatua, kultura-arteko sentsibilizazio jardunaldiak egingo dituzte, San Antolin eskolan. 10:00etan hasi eta 13:00ak arte iraungo dute. Helburua. zera da: gai horrekiko gurasoen sentsibilizazioa piztea, laster, kultura-arteko programa antolatuko dute-eta. Bestalde, Arizmendi Ikastolakoek lanbide heziketaren gaineko mahai-ingurua antolatu dute. Datorren maiatzaren 20an izango da, egue-nean, San Viator Handin, 18:00etan hasita. Besteak beste, lanbide heziketako zuzendari Edurne Erauskinekin eta Iturbide Egoitzako Administrazioaile Jon Ander Juldainekin parte hartuko dute.

Atzotik domekara arte, San Isidro jaiak ospatzen ibiliko dira Musakolan

U.M.

Erretiratuen mus, briska eta tute txapelketarekin hasi zituzten atzo, eguena, Musakolako jaiak. Domekara arteko ekitaldiak antolatu dituzte. Berritasun moduan, lore erakusketa antolatu dute, zapatuan.

Gaur goizean, Arizmendiko Santa Teresa guneko ikasleak danborrada egin dute Musakolan. Gero, 19:00etan, Ikurrina jaso eta jaiari hasiera ofiziala emango dute, etxafuegoekin, buruhandiekin eta bolo-boloarekin. 19:30ean, berriz, erretiratuek urteroko afora egingo dute eta gauerako, Etxabe Anaiak taldearekin erromeria antolatu dute.

Berriz, bihar, zapatua, 10:30ean, eta aurreneko aldiz, lore

erakusketa egingo dute, Mayte, Buart eta Belén loradendek antolatuta. Gero, 11:30ean, Hallarren *Tertia* meza esango dute, auzoko emakumeen abesbatzarekin. Eta eguerdian, herri-txikiteoa egingo dute, dultzaina-joleek lagunduta. Era berean, eguerdian, 14:00ak arte, Txatxilipurdik antolatutako umeendako puzgarriak izango dira San Antolin goanean. Eta arratsaldean, San Isidro eliza ondoan joko-lantegiak izango dira, umeendako, baita ere. 18:30ean buruhandiak aterako dira eta gauean, erromeria izango da, Trikiotza taldearekin.

DOMEKAN, AGURRA

Eta, domekan, jaien azkeneko egunean, kirol ekitaldiekin hasiko dute eguna. Batetik, gimnasia erritmikoko erakustaldia egingo dute

kiroldegian; eta "auzoko atletak" -erretiratuek- gimnasia erakusketa egingo dute, leku berean. Ekitaldi biak 10:00etan hasiko dira.

Eguerdian, txikiteoa izango da berriz. Oraingo honetan, trikitixa eskolako ikasleen musikak lagunduta.

Arratsaldean, berriz, Gorritiren animaliak ekarriko dituzte, gaztetxoendako. 17:00etatik 18:00etara izango da hori. Horren ostean, umeak etxera joan baino lehen, buruhandiak aterako dira, trikitixa eskolakoekin batera. Eta jaiari amaiera emateko etxafuegoak jaurtiko dituzte.

ERAKUSKETA, ERRETIRATUEN EGOITZAN

Bestalde, gaur eta bihar, auzoko artistek egindako lanak ikusgai izango dira auzoko erretiratuen egoitzan.



Besteak beste, dultzaina-joleek lagundutako herri-txikiteoa egingo dute.

LABUR

**Hauteskundeak
direla-eta, osoko
bilkura berezia**

Datorren astelehenean osoko bilkura berezia izango da, eguerdi partean. Hain zuzen ere, ekainaren 13ko hauteskundeetan lanean jardun beharko duten arrasatearren izenak zozketatuko dituzte. Betiko moduan, Arrasaten 33 hauteskunde zentro egongo dira, sei lekutan: Ferixalekuan, San Antolinen, Toki Argin, Bedoñaben, Erguingo eskolan eta Jokin Zaitegin. Guztira, 297 arrasatearren izenak zozketatuko dituzte: hauteskunde-mahai bakoitzeko, presidente bat, bi kide eta haien ordezkioak. Tokatu zaie nek berehala jasoko dute abisua, astean bertan. Gero, astebeteko epea dute erreklamazioak egiteko, Bergarako epaitegian.

**Emakumeen
Kontseiluak
batzarra deitu du**

Datorren astelehenerako deitu du batzarra Emakumeen Kontseiluak. 19:00etan izango da, Emakume Txokoan. Asmoa da Arrasaten, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako taldea sortzeko beharraz berba egitea. Izan ere, oro har, helburua da Arrasateko herriak indarkeriaren aurkako jarrera azaltzea eta hori kaleratzea. Horretarako, zenbait ekimen eta formula lantzeko taldea sortu gura dute, eta hori lortzeko, herritarren parte-hartzea ezinbestekoa dela uste dute. Emakumeen Kontseiluak gogorarazi du emakumeen aurkako erasoek —mehatxuak, erailketak, bortxaketak...— gorakada nabarmena izan dutela azkenaldian, bai kopuruan, baita larritasunean ere. Eta horiek edonon gertatzen direla, baita gure herrietan ere.

**Odol ateratzeak
egitera etorriko dira
datorren astean**

Oraingo astean hasi dira Gastetiko Odol Bankukoak Arrasaten odol ateratzeak egiten. Eta datorren astean ere segituko dute. Hain zuzen ere, martitzenean, eguaztenean eta eguenean izango dira Arrasateko anbulatorioan. Horrez gainera, hurrengo martitzenean eta eguaztenean (maiatzaren 25ean eta 26an) ere izango dira Arrasaten. Ordutegia ohikoa da: 16:30etik 20:00ak arte. Eta eskaera ere ohikoa da: odol beharra dagoela, eta sekula ez dela nahikoa izaten.

PRESOAK/ Hogeitau urtean edo gehiagoan kartzelan dauden presoak gogora ekarriko dituzte

Jesus Mari Zabarte 'Garratz' eta Jon Agirre: hogeitau urte baino gehiago kartzelan

UBANE MADERA

Bihar, zapatua, salaketa eguna izango da Arrasaten. Jesus Mari Zabarte *Garratz* arrasatearrak 20 urte egin ditu kartzelan, eta Jon Agirre aramaiorarrak 23. Hori gogora ekarriko dute eta, oro har, herriko preso egoera salatuko dute bihar eta datorren astean.

Bihar, 19:00etan manifestazioa egingo dute, eta gero ekitaldia, gaztetxean. Erreferentzia dira *Garratz* eta Agirre, 20 urte edo horitik gora egin dituztelako preso, baina herriko preso guztiak gogora ekarri eta haien egoera salatuko dute. Horrekin batera, mozioa ere aurkeztuko dute, Udalean.

J.M. ZABARTE 'GARRATZ'

Jesus Mari Zabarte 1984an atxilotu zuten hirugarren aldiz. Kartzela mordotan egon da azken 20 urteotan. Gaur egun Jaenen dago. Hala kontatu digu haren amak, Joxepa Arregik. Osasun aldetik eskas samar dabilela esan digu: "Hezurretako desgastea dauka, ornoak lekutik irtenda, prostata, eta Jaenen urtebete egon da bari-zeetatik ebakuntza egiteko zain". Horrez gainera, oso baldintza gogorretan eduki izan dutela esan digu Joxepa Arregik: "Behin, guardia zibil batek esan zigun berak gehien torturatu izan duen preso dela Zabarte".

Bisitei dagokienez, astero bisita bat eta hilero *bis a bis* bat izateko aukera dauka. Kontuan hartu beharra dago Joxepa Arregik ordu mordoa ematen dituela seme-ari 40 minutuko bisita egiteko: "Sei ordu bizkor-bizkor, estropezu barik joanda. Baina bueltan, Madrilen, auto-ilarak direla-eta, ia hiru ordu gehiago ematen ditugu. Etxera heldu orduko 01:30ak. Hankak lo, gau guztian karranpekin lorik egin ezinda. Pertsonak oso tratatu txarra hartzen du halako bidaietan. Ez da bizimodua". 85 urte ditu Arregik.

Garratz-ek kalean beharko luke. Kode penal zaharraren arabera, preso bakoitza asko jota 30 urtez egon daiteke-eta kartzelan. Hala, *Garratz*-ek 99az geroztik egon beharko luke aske, zigorraren hiru laurdenak beteta ditu-eta. Etxerat elkarteko kide Irati Arantxabalek zera esan digu: "Kasu horretan ez dago zereginik". Kexa zaitzake gura beste, baina ezin da ezer egin. Ia 100 preso daude horrela; Arrasaten, lau: *Garratz*, Jon Agirre, Jose Inazio Gaztañaga eta Jose Gabriel Urizar Murgoitio *Gautxori*". Zera ere gogorarazi digu, bisitekin lotuta: "Bidaia luzea izateaz gain, dirutza gastatu behar duzu. Akaso, egubakoitzean irten eta astelehen goizean bueltatzen zara. Bileren horretan, 240 euro inguru gastatu behar dituzu. Eta, jakina, istripua izateko arriskoa



DEIANE ARRIETA

Presoegoera salatuko eta datozen egunotako ekitaldiak iragartzeko prentsaurrekoa eman zuten martitzenean.

*Jesus Mari Zabartek
99an bete zituen
zigorraren 3/4ak.
Andaluzian
dago preso.*

handia dago, batez ere, norberaren automobilarekin joanez gero. Gainera, bisitetarako, kartzeletan baldintzak oso txarrak dira. Ez da ondo ikusten, ez da ondo entzuten, funtzionarioen jarrera oso gogorra da..." Joxepa Arregi erabat ados dago horrekin: "Nik denei eskatuko nieke gauza bat, bihotz-bihotzetik: legeak dio preso horiek Euskal Herrira ekarri behar direla. Eta haiek urruntzeko PSOE eta EAJ elkarren artean konpondu ziren moduan, orain berriro ere konpon daitezela hona ekartzeko. 20 urtean gabilta bueltaka, eta ordua da, mesedez, Euskal Herrira ekarri eta sufrimendu honekin bukatzeko. Presoak sufritzen dabilta, baina gure sufrimendua da ikaragarria".

Irati Arantxabalek zera gaineratu digu: "Nik uste dut disperzioarekin amaituko balute, egoerak dezente egingo lukeela onera".

JON AGIRRE ARAMAIOARRA

Jon Agirre 1981ean atxilotu zuten. Arreba Maritere Agirianok eman digu haren berri: "Gehienbat penintsularen behealdean erabili dute. Etxetik 1.000 kilometrotik gora dauden kartzeletan". Baldintzei dagokienez, oso txarrak direla esan digu: "Puerton etengabeko zarata ipintzen zioten; ia

*Jon Agirrek 96an
bete zituen
zigorraren 3/4ak.
Andaluzian
dago preso*

40 eguneko gose greba egin zuen; Huelvan ere oso baldintza gogorrak izan zituen eta Tenerifan gogorragoak. Malagan osasunagatik ditu arazoak. Desgaste handia dauka, hesteetako gaixotasun kronikoa, erregimen berezia behar du, eta mokorreko minak ere izaten ditu, artrosiarengatik. Mugitzeko ere min handiak izaten ditu. Bost urte daramatza horrela. Eta Malagan ez diote ezeren tratamendurik ipintzen; ez diote kasurik egiten". Horrez gainera, eman

*Bihar manifestazioa
eta ekitaldia izango
dira; eta datorren
astean, hitzaldia,
besteak beste*

dieten jipoiaren ondorioz, belarri batetik gorrigoela esan digu. Jon Agirrek 1996az geroztik beharko luke kalean, zigorraren hiru laurdenak beteta izatearren. Horrez gainera, gaixotasun kronikoa izateagatik ere egon beharko luke aske. "2005a ipini zioten irteteko data; orain, 2006ra aldatu diote". Senideek hilean behin dute Malagara joateko autobusa; gainerako bidaiak automobiletan egin behar izaten dituzte. Bestela, nahi baino gutxiagotan joaten dira.

20 urte edo gehiago preso



J.M. ZABARTE 'GARRATZ'

- 59 urte. Bi seme eta alaba bat.
- Arrasatearra
- 20 urte kartzelan.
- Kartzelak: Martutene, Carabanchel, Alcalá de Henares, Almería, Ceuta, Salto del Negro, Huelva eta Jaen.



JON AGIRRE AGIRIANO

- 63 urte
- Aramaiorarra
- 23 urte kartzelan.
- Kartzelak: Carabanchel, Herrera de la Mancha, Sevilla, Ocaña, Tenerife (ia bederatzitau urte), Huelva eta Malaga.

AUKEA SARIAK

Isa Casadok, Arantzazu Zubiak eta Mondrak jasoko dituzte aurtengo AUKEA sariak

Sari banaketa domekan egingo dute, Musakolako kiroldegian egingo duten gimnasia erritmikoko erakustaldiaren ostean

XABIER URZELAI

Aurtengo AUKEA sariak dagoeneko badute izena eta abizena. Isa Casado, Arantzazu Zubiak eta Mondra Futbol Taldea dira aurtengo sarituak, eta domekan bertan jasoko dituzte sariak, Musakolako kiroldegian egingo duten gimnasia erakustaldia aprobetxatuta.

AUKEA kirol erakundeak dagoeneko erabaki du joan den urtean nortzuk izan ziren Arrasateko kirolari onenak. Kirolari onenaren saria Isa Casado atletari emango diote. Talde onenaren saria Mondra Futbol Taldeak jasoko du eta aipamen berezia Arantzazu Zubiak Arrasateko gimnasia taldeko entrenatzailearendako izango da.


Isa Casadok urte biribila izan du, nahiz eta orain min hartuta dagoen. Eski denboraldia hasi aurretik mendiko maratoiak korritzen ibili zen. Besteak beste, Aizkorriko eta Mulhaceneko probetan izan zen, aurreko pos-

tuetan beti. Neguan, berriz, mendiko botak alde batera utzi eta zeharkako eskia egiteari ekin zion. Euskadiko Kopa osatzen duten probetan hartu du esku, eta proba horietan lortutako puntuei esker bigarrena izan da Euskadiko Kopan.

Talde onenaren saria, berriz, Mondra Futbol Taldeak jasoko du. Azkeneko urteak erregional mailan ibili eta gero, Josu Zubiak zuzentzen duen taldeak preferente mailara igotzeko txartela eskuratu zuen joan den denboraldian.

AIPAMEN BEREZIA

Aurtengo aipamen berezia Arantzazu Zubiarendako izango da, Arrasateko Gimnasia Erritmikoko entrenatzailearendako. Arantzazu 8 urterekin hasi zen gimnasia erritmikoa egiten, eta 19 urterekin hasi zen Arrasateko taldea entrenatzen. Entrenatzaile hasi zenetik 19 urte pasatu dira, eta oraindik ere lan horretan dihardu. Eta hark egindako lana saritu gura du AUKEA.



Domekan Musakolako kiroldegian egingo duten gimnasia erritmikoko erakustaldia 10:00etan hasiko da.

Lasaitasun bila dabilen Bergararen kontra jokatu du Mondrak bihar

X.U.

Bihar arratsaldean derbi interesgarria jokatu dute Agorrosin futbol zelaian. Mondrak lasaitasun bila dabilen Bergararen kontra jokatu du. Mahoneroak 12. postuan daude, baina garaipen bat behar dute lasai lo egiteko; izan ere, jaitsiera postuak lau puntura dituzte.

Ezin esan Bergarak eta Mondrak hil edo biziko derbia jokatu dutenik, baina oraindik ere bi taldeek hainbat helburu dituzte betetzeko, eta biharko partidua oso baliagarria da helburu horiek lortzeko. Etxean jokatu duen Bergarak behingoagatik mailari eusteko beharrezkoak dituen puntuak lortu gura ditu. Zaila da ezustekoren bat egotea, baina oraindik bederatzi puntu daude jokoan, eta jaitsiera postuak lau puntura dituzte.

Mondra, berriz, bolada onari jarraipena eman guran, gogotsu joango da Bergarara. Josu Zubiaren mutilek erakutsi dute Liga Txapelketa amaieran orain dela hilabete gutxi baino askoz ere indartsuago daudela, eta sailkapenean gora eta gora dabilta azkeneko asteotan. Talde mondragoe-



AITOR LIZARRALDE


Mondrak gol aukera garbiak izan zituen zapatuan, baina bakarra aprobetxatu zuen.

tarra dagoeneko bosgarrena da, eta hirugarren sailkatua, Zarautz, bi puntura dago.

Martxa horretan arrasatearrei motz geratu behar zaie txapelketa, jardunaldi batzuk gehiago izango balitu beste helburu batzuen gainean egongo ginatke eta berbetan. Atzera begiritzeak gutxirako balio badu ere, Gabonen ostean izan zuen beherakada

larrutik ordaindu behar du Mondrak. Hala ere, datozen hiru jardunaldietan taldeak maila onari eusten badio, ezin esango dugu Mondrak denboraldi kaskarra egin duenik, ezta gutxiago ere. Erregional mailatik igo berri delako AUKEA saria jasoko du taldeak. Izan ere, joan den urtean Mondra erregional mailan zegoen. Aurten behintzat ez ahaztu hori.

FOTOKIROLA



Besaiderekin Nafarroa aldera

Besaidek mendi irteera antolatu du maiatzaren 22 eta 23ko astebururako. Irteera Nafarroa aldera egingo dute. Zapatuan, Arbaiungo eta Irunberriko arroiak bisitatuko dituzte. Gaua Izabako aterpetxean igaro eta gero, domekan Ori aldera joko dute. Jakin ezazue zapatuko eta domekako bazkaria norberak eraman beharko duela. Izena emateko egunak datorren astelehena, martitena eta eguaztena dira. Izena ematerakoan 30 euro aurreratu behar dira. /X.U.



JOKIN ETXEBARRIA

Erromo Urola baino talde gogorragoa da, eta arrasatearrek joan den astean baino hobeto jokatu beharko dute.

ESKUBALOIA

AGRk aurre hartu gura dio bigarren postuan dagoen Erromo taldeari

Arrasateko taldea hirugarrena da, baina Erromok eta Corazonistasek dituzten puntu berekin

XABIER URZELAI

Igoera fasean garesti dago lehenengo postua eskuratzea. Arrasateko taldea bikain dabil, baina Erromo eta Corazonistas taldeek ez dute kalerik egin gura. Joan den astean euren artean berdindu egin zuten, eta orain, hiru talde daude sailkapenaren aurrealdean.

Hamarna puntu. Hori da Gasteizko Corazonistas, Bilboko Erromo eta Arrasateko AGR taldeek orain arte eskuratu duten puntu kopurua. Igoera fasea amaitzeko hiru jardunaldi baino ez dira geratzen, eta gauzak ez daude batere argi. Gaitza da pareko-

tasun handiagoa egotea, lehenengo hiru sailkatuak hamarna punturekin daude-eta. Horrez gain, atzetik datorren Burdin Trapaga taldeak zortzi puntu ditu, eta ez du amorerik eman gura.


ERROMOREN KONTRA, ITURRIPEN

AGR Arrasatek gauza bat dauka aldeko: geratzen diren hiru partiduetatik bi etxean jokatu dituela. Eta bi partidu horiek Arrasatekoekin berdinduta dauden Erromo eta Corazonistas taldeen kontra izango dira. Nahikoa da bi partidu horiek irabaztea AGR mailaz igotzeko. Baina argi dago ez direla nolanhiko kontrarioak. Hori bai, Arrasateko mutilek oraindik ez dute Iturri-

pen galdu; hiru partidu jokatu dituzte, eta hirurak irabazi — joan den astean gol bateko aldeagatik—. Etxetik kanpo egin duten lana ere ez da makala izan, bi partidu irabazi dituzte-eta.

Oraingo asteburuan Erromoren bisita izango dute Iturripen, eta igoera faseko norgehiagoka garrantzitsuenetako bat egongo da jokoan. Batetik, AGRk etxean jokatuak norgehiagoka guztiak irabazi egin behar dituelako, eta bestetik, Erromo kontrario zuzena delako. Euren kantxan jokatu zutenean, talde bizkaitarra gehiago izan zen (22-15). Hori, baina, hirugarren jardunaldian izan zen, eta ordutik hona AGRren jokoak hobera egin du.

FOTOKIROLA



Arrasate, Herri Arteko Txapelketan

Arrasateko pilotariek gaur gauean (22:00) hasiko dute Urretxun Herri Arteko Txapelketa. Kadetetan, Uribarren eta Ortiz de Mendibil izango dira. Gazte mailan, Axpek eta Gonzalok defendatuko dute Arrasate; eta senior mailan, Uribarren eta Lazkanok jokatu dute. Uribarren, baina, min hartuta egon da, eta partidurako gertu ez badago Agirrek osatuko du Lazkanorekin bikotea. Ea txapelketa ondo hasten duten. X.U.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

Betrayer - Etxerat	5-5
Iriztu Taberna - Speed Boys	5-2
AC Surcos - Abokajarro	8-5
Aloña Taberna - Dream Team	18-13
Dribling - You Know!	3-6
Lasagabaster - AT Celaya	8-2
Saukelu Scream - Tomahawk	4-3

SAILKAPENA

A MULTZOA		P	J
1. Etxerat	12	7	
2. AC Surcos	12	7	
3. Betrayer	11	7	
4. Iriztu Taberna	7	7	
5. Aloña Taberna	6	7	
6. Speed Boys	4	7	
7. Dream Team	2	7	
8. Abokajarro	2	7	

PARTIDUAK

MAIATZAK 15, ZAPATUA. EPAILEAK

11:50: Lasagabaster - Betrayer	Antola
13:00: AC Surcos - You Know!	Antola

MAIATZAK 16, DOMEKA. EPAILEAK

11:50: Saukelu Scream - Iriztu Tab.	Antola
13:00: Etxerat - Dribling	Antola

B MULTZOA		P	J
1. Saukelu Scream	13	7	
2. Lasagabaster	10	7	
3. You Know!	9	7	
4. Dribling	8	7	
5. AT Celaya	7	7	
6. Tomahawk	7	7	
7. Rayo Aldeano	0	7	
8. Goma-2	0	7	

FINAL-LAURDENAK JOKOAN

SORPRESARIK EZ ZALDIBARKO FINAL-LAURDENETARAKO

Urtero talde berriak sortzen dira Zaldibarko Txapelketarako, eta beste hainbat talde kanpotik etortzen dira. Aurtengo Zaldibarko Txapelketako final-laurdenak nortzuek jokatuko duten ikusita, argi dago ez dela sorpresarik izan. Zortzi talde horietako batzuek dagoeneko badakite txapelketa irabaztea zer den, eta gainontzekoak ia gihienetan sailkatu dira txapelketaren azken txanparako.

Joan den asteko jardunaldiaren gainean azpimarratu gura ditugu Aloña Taberna taldea, AT Celaya eta Tomahawk. Hiru talde horiek gutxiatik ez dira final-laurdenetarako sailkatu, baina azken momentura arte lehian ibili dira. Momentu honetan gutxiarako balio badu ere, emozioa eman diote bigarren faseari. Eta sailkatu diren taldeei, zorionak. Txapelketa osoan lan handia egin eta gero, orain da benetako maila erakusteko momentua. Jakin ezazue Lasagabaster taldeko jokalariek batek bi partiduko zigorra bete beharko duela. Ez da lelokeriak egiteko momentu aproposa.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Bergara - Mondra
Preferentea. Zapatuan. 17:00. Agorrosinen.
Eibar - Mondra
Ohor. Gazteak. Zapatuan. 12:30. Ipuruan.
Arrasate - Dunboa Eguzki
Big. Gazteak. Zapatuan. 17:30. Atxabalpen.
Aloña Mendi - Arrasate
Ohor. Kadeteak. Zapatuan. 10:30. Azkoagainen.
Arrasate B - Urki CD
Big. Kadeteak. Zapatuan. 09:45. Atxabalpen.
Mondra - Agurain
Neskak. Zapatuan. 11:30. Atxabalpen.

SASKIBALOIA

Arrasate - STL Azkue
Juniorrak. Zapatuan. 16:00. Musakolan.

ESKUBALOIA

AGR Arrasate - Romo
Igoera fasea. Zapatuan. 18:00. Iturripen.
Arrasate - Donibane Majestic
Territorial maila. Zapatuan. 19:15. Iturripen
Gatz Museoa - Amen. Mollarri
Kadeteak. Mutilak. Domekan. 10:15. Iturripen.
Arrasate - Pagoaga Elgoibar
Kadeteak. Neskak. Zapatuan. 16:00. Iturripen.
Gatz Museoa - Bergara
Gazteak. Kopa. Domekan. 11:45. Iturripen.
GIMNASIA ERRITMIKOA
San Isidroako erakustaldia.
Zapatuan. 10:00. Musakolako Kiroldegian.



ARRASATEKO MUSIKA ESKOLA

Arrasate Musika Eskolako musikariek instrumentuen gaineko kontzertu-erakustaldia eskainiko diete herriko hainbat gaztetxori.

MUSIKA/ Astelehenean, Arrasateko Musika Eskolak kontzertu didaktikoa egingo du Amaia Udal Antzokian

Orkestrako eta bandako instrumentuen gaineko erakustaldia, gaztetxoendako

IKER BARANDIARAN

Astelehenean, maiatzaren 17an, Arrasateko Musika Eskolak kontzertu pedagogikoa egingo du Amaia Udal Antzokian. 350 ikasle izango dira kontzertua ikusten, eta eskolako kideek musika instrumentuen gainean azalpenak emango dizkiete.

Astelehenean, maiatzaren 17an, Arrasateko Musika Eskolak kontzertu pedagogikoa egingo du Amaia Udal Antzokian, 15:00etan. Honako hau bigarren aldia da musika eskolak Amaia Udal Antzokian halako kontzertu bat antolatzen duena. 2002. urtearen aurretik herriko eskoletan egiten zituzten, baina Arrasateko Musika Eskolako plan estrategikoa hitzartu zutenetik, Komunikazio eta Ekintza Taldeak kontzertu hori urtero Amaia Udal Antzokian egitea erabaki zuen.

350 IKASLE BATUKO DIRA

Astelehenean, Arrasateko 350 ikasle izango dira kontzertu hori ikusten. Arrasateko Musika Eskolako arduradunei jakinarazi dietenaren arabera, Herri Eskolako gaztetxoak ezin izango dira joan, ezta Almen gunekoak ere. Lehen Hezkuntzako lehenengo, biga-

rrren eta hirugarren mailetak gaztetxoak —6 eta 9 urte bitartekoak— joango dira, Arizmendi ikastolako hainbat gunetakoak eta Mesedeetako Andra Mari ikastetxeakoak, hain zuzen ere. Hala ere, kontzertua doan izango da, eta gura duenak joan ahal izango du, lagun gehiagorendako lekua egongo da-eta.

INSTRUMENTUAK HOBETO EZAGUTU

Arrasateko Musika Eskolako kideek eskolan dituzten instrumentu guztiak erakutsiko dituzte. Horrez gain, balet erakustaldia ere egingo dute. Asmoa hori da, gaztetxoei orkestra baten edo banda baten jotzen diren instrumentuen soinua eptzuteko aukera eskaintzea.

Kontzertua 15:00etan hasiko da. Lehenik eta behin, eskolako balet taldeak *Piratas del caribe* pieza interpretatuko du. Horren

ostean, instrumentu polifonikoen berri emateko, piano jotzaile batek *Heidi* kantua joko du, eta horren ostean, abeslari baten laguntzarekin, *La flauta mágica* eskainiko dute. Akordeoi jotzaileek, bata tekladuna eta bestea botoiduna, *Musette pour deux* abestia joko dute.

Haize-instrumentuen boskote batek ere esku hartuko du: biolin, biola, biolontxelo, kontrabaxu eta gitarrarekin erakustaldia egingo dute. Horretarako, boskoteak hiru pieza joko ditu: *Hunting the hare*, *Morpeth rant* eta *King of the fairies*.

Haize-egurrezko instrumentuei dagokionez, honako hauek erakutsiko dituzte: klarinetea, saxofoia, oboea, fagota, zeharkako txirula eta txistua. Instrumentu horien ardura duen seikoteak *Los picapiedra* eta *La pantera rosa* piezak joko ditu.

Haize-metala, berriz, honako instrumentuek osatzen dute: tronpetak, tronboiak, tronpak eta tubak. Laukote horrek *Tango* eta *Huit et demi* kantua joko ditu.

Hainbat musikariek perkusioa egingo dute. Horren baitan, hainbat eta hainbat instrumentu erabiliko dituzte: hirukiak, karrakak eta beste asko. Perkusio jotzaileek, besteak beste, tren baten simulazioa egingo dute.

AZALPENAK EMANGO DITUZTE

Kontzertuak ordubete inguru iraungo du, eta bi aurkezlek esku hartuko dute: Arrasateko Musika Eskolako zuzendari Marta Izagirrek eta Markel Duran musikari eta abeslariak. Arrasatearrak dira, eta aurkezpen lanak egiteaz gainera, pianoa eta biolina joko dituzte.

Kontzertuan batutakoei hainbat azalpen emango dizkiete.

Arrasateko hainbat ikastetxetako 350 gaztetxok ikusiko dute kontzertu-erakustaldia

Kontzertuak ordubete iraungo du, eta musika jotzeaz gain, hainbat azalpen emango dituzte

Kontzertua gaztetxoei zuzenduta dagoen arren, edonor joan daiteke

LABUR

Datorren asteburuan, Erdi Aroko I. Azoka

Maiatza oso oparoa izaten dabil kultura ekintzei dagokienez. Ohiko ekintzez gain, zeramikagileen azoka eta San Andresko jaiak izan ditugu. Horrez gain, gaur, bihar eta etzi, Musakolako jaiak egingo dituzte. Horrez guztiaz gain, datorren asteburuan, maiatzaren 22an eta 23an, Udalak Erdi Aroko I. Azoka egingo du herrian. Arrasateko alde zaharra Erdi Aroko oihalekin apainduta egongo da, eta mota guztietako saltokiak ipiniko dituzte: urregileak, larrutx egileak, beiragileak eta beste asko. Zelan lan egiten duten ikusteko eta ekoizpenak erosteko aukera egongo da. Seber Altube, Herriko Plaza eta Erdiko kalea zeharo moztortuko dituzte.

Horrez gain, Erdi Aroko musika taldeek eta herriko dantza taldeek ikuskizunak egingo dituzte, eta falkoneria —hegazti harrapariak— erakustaldia ere egingo dute. Cremallera izeneko antzerki taldeak antzezlanak egingo ditu, iluntzean su ikuskizunak egingo dituzte, eta beste talde batzuek kalejirak egingo dituzte.

Suge-sorgintzaileek, perkusio jotzaileek, hanka-luzeez, malabaristek, iragarleek eta beste pertsonai berezi askok giro polita ipiniko dute herrian asteburu osoan. Egia esanda, ez da aspertzeko astirik izango!

San Juanetako kartel lehiaketan esku hartzeko epea

Abian da San Juan jaietako horma-irudia egiteko lehiaketa. Debagoienean bizi edo erroldatuta dagoen edozeinek esku hartu ahal izango du.

Aukeratutako irudia jaietako egitarauaren azalean erabiliko da, eta herriarekin eta jaiarekin lotura zuzena izan beharko du. Honako neurria izan beharko du: 28x21 cm.

Teknika librean izango da, eta kartelek derrigorrez testu hau izan beharko dute: *2004ko San Juan Jaiak Arrasate*.

Irabazleak 750 euroko saria jasoko du, baina kopuru horri PFEZren atxikipena ezarriko zaio. Kartelak 2004ko maiatzaren 21a baino lehen aurkeztu beharko dira. Hala, koetan ohikoa den moduan, egilearen nortasuna ezin izango da azaldu eta atzealdean lelo bat dutela aurkeztu beharko dira kartelak.

Saritzen den lana Udalaren esku geldituko da, eta kaleratu ahal izango du.

ZINEMA/ Asteburuan film eskaintza zabala izango da

Komunismoaren gainbeheraren gaineko komedia eta Sezesio gerrako drama

IKER BARANDIARAN

Asteburu honetan ez da etenaldirik egongo. Hala, gaurtik (egubakoitza) astelehenera bitarte filmak emango dituzte egunero Amaia Udal Antzokian. Gaur, *Good bye, Lenin*; bihar eta etzi, *Cold mountain*; eta domekan, *Hermano oso*.

Udaleko Kultura Sailak oraindik ez du horren gaineko baloraziorik egin, baina gustura dago Amaia Udal Antzokiko film eskaintzak duen harrerarekin. Batez ere domeketan lagun asko joaten dira filmak ikustera.

Gaur, egubakoitza, zinekluba egingo dute. *Good bye, Lenin* filma emango dute, 20:30ean. Wolfgang Becker zuzendariak egin du, eta 121 minutu irauten du.

Ekialdeko Alemaniako emakume komunista bati bihotzekoa emango dio. Koma egoeran dagoen bitartean, Berlingo horma bota egin dute eta bat-batean kapitalismoa ezarriko da. Emakume horren semeak ez dio aldaketa horien berri eman gura, beste bihotzeko bat izan ez dezan, eta horrek egoera xebreak sorraraziko ditu.

Filmeko protagonistak ez dira oso ezagunak: Daniel Brühl, Katrin Sass, Chulpan Khamatova eta Maria Simon. Film horrek 2003ko Europako film onenaren saria irabazi zuen.



Cold mountain filmean aktore oso ezagunek esku hartu dute: Nikole Kidman, Jude Law, Renee Zellwegerrek...

Bihar, zapatua, eta domekan, *Cold mountain* filma emango dute, 19:00etan eta 22:00etan. Anthony Minghella zuzendariak egin du, eta 155 minutu irauten du. Zuzendari horrek, besteak beste, *El paciente inglés* eta *El talento de Mr. Ripley* filmak zuzendu zituen.

Filma AEBetako Sezesio

gerraren osteko sasoi etsigarrian giroa dago. Inman zaurituta soldadu bat da eta maite duen emakumearen bila dabil; Adak aitaren landetxea defenditu beharko du, baina ez dauka ausardiarik; eta Ruby izeneko emakume gogorrak Adari lagunduko dio.

Drama honen protagonistak honako hauek dira: Nikole Kidman (*Dogville*, *Moulin Rouge*, *Eyes wide shut*...); Jude Law (*Inteligencia artificial*, *Enemigo a las puertas*...); eta Renee Zellweger (*Persiguiendo a Amy*, *El diario de Bridget Jones*, *Chicago*...). Hirurak hala hirurak aski ezagunak.

Filmak 83 milioi dolarreko aurrekontua izan zuen, eta Miramax enpresak egin duen film garestiena izan da. Gastuak murrizteko, Transilvanian (Errumania) filmatu zuten, eta hori ez zuten ondo hartu AEBetan. Batzuen ustez, horren ondorioz zelantza boikota egin diote filmari.

Cold mountain zazpi Oscarretarako izendatu zuten, baina azkenean ez zuen bat bera ere eskuratu. Hala ere, Renee Zellwegerrek aktore onenaren Globo saria irabazi zuen.

TALIBANEN GAINEKO BENETAKO FILMA

Etzi, domeka, ume eta gaztetxoendako *Hermano oso* animaziozko filma emango dute, 17:00etan. Aaron Blaise eta Bob Walker zuzendariak egin dute, eta 85 minutu irauten du.

Datorren egubakoitzean, maiatzaren 21ean, zinekluba egongo da. *Osama* filma emango dute, 20:00etan. Siddiq Barmak zuzendu du, eta 83 minutu irauten du. Talibanez Afganistanen boterea hartu zutenean, Barmak zuzendariak Pakistanera ihes egin zuen. Filmean esku hartzen duten aktoreak ez dira profesionalak. Filmak oso sari garrantzitsuak irabazi ditu.

Benetako albiste baten oinarrituta dago. Neskatila batek talibanen garaian eskolara joan ahal izateko mutil itxura hartuko du. Horrek beldur handia sorraraziko dio.



Zarraoa lurrindegia

Kanpatorpea 4 behea ARRASATE Tel.: 943 79 12 19

60 urte bete ditugula ospatzeko oparia emango dizugu.

Eta gainera %10eko deskontua.

Maiatzaren 17tik 22ra.

Hiru belaunaldi
60 urte zuen artean
Eskerrik asko!!!



MUSAKOLA Jaiak 2004




Maiatz
ILEAPAINDEGIA

Antso Abarka, 3 bajo · Musakola
ARRASATE · Tf. 943 79 58 78


Foto Flass
Ordubeteen

Eroski merkatal gunea Tel.: 943 77 19 54

ARRASATE
Maisu Arambarri, 1
20500
Tel. 943 77 14 14

DURANGO
Ermodo, 11
48200
Tel. 94 620 30 37

Okindegia - Gortezia
BEROGI
Etxeko Etxoizkinak



**AGRICENTRO
OTXOA, S.L.**

Haziak, ferreteria,
drogeria, jardinerako
tresnak eta etxeko
animalientzat osagarriak

Musakola Industrialdea 2 Tel.: 943 79 17 79

ESTRELLA TABERNA

Elkano, 3 Tel.: 943 79 20 82

**JEY
JULIWER**

Elkano kalea, 36 Tel.: 943 79 22 11

**MUSAKOLA
estankoa**

Antxo Abarka, 6. Tel.: 943 79 17 57



AGR
García Ripa
ERREFORMAK S.L.

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotatuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako
alfonbrak
Gortinak, mahai
eta aulkiak

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behea (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

BEBERLY

Gipuzkoa Etorbidea, 9
Tel.: 943 79 16 99



Taberna - Jatetxea

**HOSTAL
MUSAKOLA**

Gipuzkoa Etorbidea z/g
Tel.: 943 79 20 50

ARGI-PLASTIK SL

Leihoen fabrikazioa:

- PVC
- Aroztegi mistoa
- Aluminioa
- Pertsianen fabrikazioa eta konponketa
- RPT

ERAKUSKETA ETA LANTEGIA **ORDEZKARITZAK**

Zigarola 1, 8. pab. San Pelayo 22. Tel.: 943 17 33 08
Tel./Faxa: 943 77 11 30 ERMUA
Tel.: 943 79 62 18 Mikeldi 2 behea. Tel.: 946 20 24 76
ARRASATE DURANGO



**ARRASATE
Electricidad**

**INSTALAKUNTZA ETA
MUNTATZE ELEKTRIKOAK**

• Argizatze profesionala

24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77
Gipuzkoa etorb. 37 Tel./Fax: 943 79 65 93

Begoña

Lurrindegia • Drogeria

Gipuzkoa etorbidea, 33 Tel.: 943 79 03 73



**HARATEGIA
URDAITEGIA**

Maisu Aranbarri, 2
Tel.: 943 79 29 14

EGITARAILIA

MUSAKOLAKO JAIAK 2004

Maiatzak 14

11:30 Danborrada, Arizmendiko Santa Teresa guneko ikasleekin.

19:00 Etxafuegoak, buruhandiak, bola, Ikurrina jasotzea.

19:30 Erretiratuentzako afari-jai.

22:00 Dantzaldia, Etxabe Anaiak taldearekin.



Maiatzak 15

10:00 Etxafuegoak eta buruhandiak, dultzaineroekin.

10:30 Lore erakusketa, Mayte, Buart eta Belen lore dendek antolatuta.

11:30 Haller-en Meza, Tertia emakumezko abesbatzak lagunduta.

12:30 Herri-txikiteoa, dultzaineroek alaiturik.

12:00 Umeentzako puzgarriak, Txatxilipurdik antolatuta, San Antolingo Herri Eskolan.

16:30 Umeentzat joko-tailerrak San Isidro eliza ondoan.

18:30 Buruhandiak, dultzaineroekin.

22:00 Dantzaldia, Trikizio taldearekin.

Maiatzak 16

10:00 Etxafuegoak eta buruhandiak, trikitixa eskolako taldearekin.

10:00 Gimnasia erritmiko erakustaldia, Musakolako kiroldegian.

10:00 Auzoko atleten gimnasia erakustaldia, Musakolako kiroldegian.

12:30 Txikiteoa, trikitixa eskolako ikasleek alaiturik.

17:00 Umeentzako jai, Gorritiren animaliekin.

18:30 Buruhandiak, trikitixa eskolako ikasleekin.

21:00 Etxafuego jaurtiketa eta jaien amaiera.

Isana

Heapaindegia

Elkano kalea, 4 behea Tel.: 943 79 60 55

Txinato Taberna

Elkano kalea 9. Tel.: 943 79 20 65

Rafa

SARRAILAGINTZA Giltzak, bonbilloak, urrutiko aginte tresnak	ERA GUZTIETAKO OPARIAK Diru-zorroak Oroigarriak Giltzatak Erreplikak Agur-afarietarako artikulak
LABANAGINTZA Labanen, aiztoen, artazien, eta abarren salmenta eta zorrozketak	Hiper Eroski, 1 eta 3 • Arrasate Tel. eta faxa: 943 79 76 03
KONPONKETAK Oinetakoak eta aterkiak	

LIRAIN ILE APAINDEGIA

ELKANO KALEA 38 BEHEA. • TEL.: 943 79 52 37

KORTABERRI Harategia
Urdaitegia

Antso Abarka, 3
Tel.: 943 79 20 28

HIPER EROSKI Eguneroko
kafetegia
jatetxea

Musakola Pol. z/g
Tel.: 943 79 55 69

J. Elorza

Harategia • Urdaitegia

Joan Bengoa, 1 Tel.: 943 79 75 80

ZIORLA
Taberna

Antso Abarka 5. ARRASATE
Tel.: 943 79 20 46

TEL.: 609 14 25 25

ZIORLA
GARRAIOAK

Aupa Ziorla!
Jai zoriontsuak izan!

PREMIAZKO ZERBITZUAK
NAZIONALA-NAZIO ARTEKOA

IOSU
KAFETEGIA

Elkano kalea, 25
Tel.: 943 77 03 66

MENETA
TABERNA

Etorri eta
proba ezazu
Menetako
txorixue

Iluna
taberna

Elkano 23
Tel.: 943 79 23 78



URIBARRI NAGUSI, ELKARTEEN ARTEKO MUS TXAPELKETAN

Aurtengo Elkarte Gastronomikoen Arteko Mus Txapelketa Txalapartan egin zuten, eta etxean jokatu bazuten ere, Txalapartako bikote Merinok eta Lorenek bigarren postuarekin konformatu behar izan zuten. Uribarri elkarteko Elortzak eta Redondok erakutsi zuten abilezia handien, nahiz eta kartetan zorteak ere beti laguntzen duen. 13 elkarte-tako ordezkariak hartu zuten esku txapelketan, eta txapelketa bukatu eta gero 60 lagun izan ziren afaltzen.

ARTALDE EDERRA IZAN ZUEN 'SETE' ARTZAINAK VALLADOLIDEN, EZKON AGUR AFARIAN

Zapatuan ezkonduko da Xabier Azula *Sete*, eta seguru Arantza Urrutiak artzain ederra eramango duela etxera. Hori erakutsi zuen, behintzat, *Sete*-k Valladoliden. Ez zuen izan erraz gobernatzen diren artalde horietako bat, argazkian azaltzen diren ardi horiek Valladolideko zelaietan baino gurago zuten-eta tabernaz taberna ibili.

Ezkon aurreko agur afarian ondo baino hobeto ibili ziren, baina meritua behar da parranda egitera Gaztelaraino joateko. Esan bezala, bihar ezkonduko dira Xabier Azula eta Arantza Urrutia, eta seguru gauean Zigorrola aldean ibiliko direla. Gero, Brasilerara joateko asmoa dute. Lagun guztien partetik, zorionak, bikote!!!



IKASTOLAREN JAIA EGIN ZUEN ARIZMENDIK ZAPATUAN

Zapatuan Arizmendik ikastolaren jaia ospatu zuen. Ekitaldia Seber Altuben hasi zen, *Argitxo*-ri egindako ongietorriarekin. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleen artean euskararen erabilera bultzatzera etorri zen *Argitxo* Arrasatera. Eta, asko izan ziren *Argitxo* ikustera hurbildu ziren gaztetxo eta gurasoak. Ikasleek ikasturtean zehar egindako kultura ekintzen emaitzak erakutsi ahal izan zituzten: antzerkiak, bertsolariak, abesbatza... Horrez gain, argazkian azaltzen den moduan, ondo pasatzeko gura beste joko izan zituzten.

E, TXO!

UDALEKU IREKIETAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Txatxilipurdi elkarteak udaleku irekiak antolatu ditu 2 eta 10 urte bitarteko ume eta gaztetxoentzako. Interesa dutenek ekainaren 18a aurretik eman beharko dute izena. Txatxilipurdi elkartearen (Pablo Uranga 4) edo 943 79 54 46 telefonoan argibide gehiago emango dituzte.

UDALEKU ITXIETAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Txatxilipurdi elkarteak udaleku itxiak egin gura ditu uztailean, 9 eta 16 urte bitarteko gaztetxoentzako. Egonaldi horiek Beintzan, Orion eta Kantabrian izango dira, hain zuzen ere. Eman izena ekainaren 18a aurretik, Txatxilipurdi elkartearen egoitzan.

IPUIN BARREGARRIEN LEHIAKETA

Debagunek, Debagoienako Euskara Elkartearen elkargoak, *Barre barra-barra* ipuin barregarrien lehiaketa antolatu du. Bi sail ditu: idatzizkoan, onenari 450 euro emango dizkiote; eta debagoien-dar onenari 150 euro. Ahozkoetan, onenari 300 euro emango dizkiote. Euskal Herri osoko biztanleek esku hartu ahal izango dute. Ipuinak norberaren euskalkian idatzita bidaltzea eskatzen dute. Idazlanak hiru kopiatan, ordenagailuz edo eskuz idatzita eta bi edo zazpi orrialdeko luzerarekin aurkeztu beharko dira. Grabazioen kasuan, ipuin edo pasadizo barregarriak bidali beharko dira, norberaren euskalkian. Bi kopia aurkeztu beharko dira, 10-15 minutukoak. Lanak maiatzaren 28a baino lehen bidali: Debagune. Ipuin barregarrien lehiaketa. Errotalde jauregia z/g. 20570, Bergara.

MUSIKA/ Asteburuan bi jaialdi egingo dituzte gaztetxean

Afrika, Miss Dinamarca eta Surfing Kaos taldeek kontzertuak egingo dituzte

IKER BARANDIARAN

Gaurko, egubakoitza, eta biharko, zapatua, kontzertuak antolatu dituzte gaztetxean. Gaur, Afrika Bibang abeslariak diskoa aurkeztuko du eta bihar, Miss Dinamarca eta Surfing Kaos taldeek kontzertua egingo dute, Psylocibe biraren barruan.

Azkeneko hilabeteotan AGAKOK-Arrasateko gaztetxeako batzarra-hainbat ekitaldi antolatzen dihardu. Urteurrena ospatu zutenetik, asteburu ekintza mordoa egiten dabilta, baita gaur eta bihar ere.

Gaur, egubakoitza, Afrika Bibang abeslariak *Entzun* izeneko diskoa aurkeztuko du, 22:30ean. Afrika Bibang eskarmentu handiko abeslaria da: besteak beste, Etsaiak, Keu eta Ke Rule taldeekin abesten ibilitakoa da. 2003an, Fermin Muguruzak bakarkako diskoa kaleratzeko laguntza eskaini zion, eta Rudo Friends Sound System taldeko gitarra jotzaile Israel Monzoncilloekin eta Ernesto Maestorekin grabatu du diskoa. Kontrakalea Metak diskoetxeak *Entzun* lana kaleratu du, eta hura aurkezteari ekin dio.

Ekuatore Ginean jaiotako euskaldun horrek disko txukuna gra-



KONTRAKALEA METAK

Afrika Bibang abeslariak ibilbide luzea dauka musikagintzan.

Afrika Bibang abeslariak, besteak beste, Etsaiak, Keu eta Ke Rule taldeekin abestu du

Zapatuan, Surfing Kaos eta Miss Dinamarca taldeek kontzertu bizia egingo dute

batu du, soul, jazz, elektronikoa eta rhythm and blues doinuak uztartuta. Eta hainbat musikaririk lagundu diote: Jon Urrutiak, latin pianoa; Borja Barruetak, bateria; Gorka Escauriak, funk baxua; Travis Flintek, scratchak; eta Sorkunek, ahotsa.

PSYLOCIBE ELKARTEAREN JAI

Psylocibe elkartearen Hondarribiko musika taldeek osatzen dute. Orain dela hilabete batzuk Hondarribiko taldeen kantuekin osatutako CD bikoitza kaleratu zuten, eta hori aurkezteko bira antolatu zuten.

Azkeneko kontzertua bihar egingo dute, 22:30ean. Bi taldek esku hartuko dute: Hondarribiko Miss Dinamarkak eta Donostiako Surfing Kaos, gonbidatu moduan.

Surfing Kaos Donostiako hirukote bat da, eta ibilbide luzea duten musikariek osatzen dute. Besteak beste, Lau Itzal, Utikan eta Mugatik taldeetan ibilitakoa dira. Orain dela bi urte sortu zuten talde hori, eta dagoeneko bost kantuz osatutako CDa daukate. Euskaraz abesten dute, eta punk-rock bizia egiten dute.

Miss Dinamarca, berriz, Hondarribiko hirukote bat da. Horiek rock-and-roll gogorra egiten dute, eta *El año de la minifalda* make-ta aurkeztuko dute.

Arizmendiko kultura asteko irabazleak

I.B.

Arizmendi ikastolak egin duen kultura astean hiru lehiaketa egin dituzte: argazkilaritza, bertso paperak eta *Nola etorriko da Argitxo?*, hain zuzen ere. Hirurak garápen iraunkorrek lotuta.

Arizmendi ikastolak garapen iraunkorren gaineko kultura astea egin du, eta horren baitan hainbat lehiaketa egin dituzte.

Batetik, ikasleei gure ingurune-tik gehien edo gutxien gustatzen zaiena aukeratzeko argazki lehiaketa egin dute. Irabazleak honako hauek dira: Antton Salaberria, Alazne Zuazubiskar, Iñaki Salaberria, Xabier Biteri, Maialen Jarza, Ana Zelaia, Ander Elkorro, Jone Sagasta, Harri Anzizar, Saioa Arriola, Jaiza Cid, Jone Ugarte, Ibai Gorosarri, Jone Aranburu, Ainara Esteban, Maite Madina, Silvia Montano, Josu Jauregi eta Alex Elortondo, hain zuzen ere.

Joan den zapatuan, Ikastolaren egunean, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleen artean euskararen erabilera bultzatzeko *Argitxo* maskotari ongietorria egin zioten, eta horrekin beste lehiaketa bat egin zuten. Kontua zen asmatzea maskota zein ibilgailutan etorriko zen. Azkenean, *Argitxo* bizikletan etorri zen, eta honako hauek izan ziren ibilgailua asmatu zutenak: Maialen Beltran de Guevara, Eider Altube, Maider Urrutia,

Txomin Etxabe, Uxue Okina, Asier Dolara, Mikel Santiago eta Nerea Madinabeitia.

BIRZIKLAPENAREN GAINKO BERTSOAK

Horrez guztiaz gain, kultura astearen gaineko leloa zuen bertso lehiaketa egin zuten: *Gure etxean hondakinak ez dira birziklatzen. Nik egoera aldatu nahi dut.* Eta hauek izan ziren bertso paper lehiaketako irabazleak: Garazi Barberan, Ainara Erostarbe eta Lide Arenaza.

HIES BERRI
Tel.: 943 79 26 99

Gambrinus garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebepun hizkiak

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

BEHEKODENDATIK

Izar Larrañaga

EMUN KOOPERATIBA

XABIER URZELAI

Izar ingeniarixe bada be, enpresa munduen euskerie indarkeretako helburu daukon kooperatiban egitten dau lan: Emunen. Egindako karrerie eta euskerien gainen daukon ardurie bateragarri egitten ditu bere lanien. Egun ona aukeratu euen Emunen lanien hasteko: Maritxu Kajoi egune, oin dala lau urte.

Ze falta jako Mondragueri?

Euskeraz berba egitten dauen jente gehixau.

Eta, ze dauko ona?

Jentie.

Ze falta jatzu zeuri?

Denbora librie.

Eta, ze dauketzu sobran?

Buruko miñak, ardurak...

Pelikula bat. Liburu bat.

Musika talde bat.

Tomates verdes fritos / Babilonia / Su Ta Gar.

Momentu honetan nora juen-go zitzake gustora?

Amestu ezker? Afrikako lekuren batera.

Egitten dozun etxeko lan gorrotagarrixena.

Ohie egittie.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Hori ez dutzut kontauko!!! (Barriek).

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Gogue eukittie eta egitten dogun lanien siñisketie.

Denbora librien ze egitten dozu?

Deportie, ahal dotenien.

Kapritxo bat.

Urtebeterako norabait juetie; urte sabbatikue hartzie.

Aste bukaerie pasetako leku apropos bat.

Zuberoa.

Ze leiduko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Mondraguen euskerien erabilierie %50 dala.

Ze egitten dozue Emunen?

Geure lana lan mundure dau enfokate. Azken baten, lan mundue euskaduntzeko aholkularitza



X.U.

"Lan mundua euskalduntzeko aholkularitza zerbitzua ofreziduten dogu Emunen"

zerbitzua ofreziduten dogu, euskara planak egiñez.

Hortan, ez da egongo Mondraguen enpresarik Emunek beste lan daukonik.

Bai, tamalez lan haundixe daukogu. Lanik ez eukittiek esan gureko leuke Mondragueko enpresetan euskerien egoerie ona dala. Alde horretatik begittute, gureko geuke paruen egon.

Zuzenien botata: zelakue da euskerien egoerie enpresa munduen?

Esango neuke bide luze baten hasieran gauzela. Lan haundixe egin da, eta gauza asko lortu die, baiñe ondiokan hasi baiño ez gare egin. Jakin biher dogu atzera begi-

"Esango neuke bide luze baten hasieran gauzela. Hasi baiño ez gare egin, eta asko dau egitteko"

ratuaz aurrera begiraketan.

Lege eta ekonomia aholkularitza euskeraz emuten dozue.

Bai. Gutxi die horreik zerbitzuok euskeraz gure dauenak, edo horretaz arduraketan dienak. Jentiek erderara joten dau.

Itzulpegintza lanak be egitten dittuzue. Ze da gatxaue, testue euskeraketie ala ulergarrixegittie?

Itzulpen onak egin biher die, eta horretarako ulergarrixek izen biher die.

Egun dana Emuten, ze jasoten dozue bueltan?

Poztasun haundixe.

Beti?

Beti, beti...

NIREBIDAIAHURA/ Ortzi Pildain

Finlandiara eta Estoniara / 2004ko martxoan

Ortzi Belgikan dago, Lovainan, Goi Mailako Inge-niaritzako Masterra egiten. Martxoan, baina, Finlandiara joateko aukera izan zuen, Belgikako bizikideetako bat hangoa da-eta. Bizikideak otsailean amaitu zituen ikasketak, eta etxera itzultzerakoan, Ortzi eta hainbat lagun Finlandiara joatera gonbidatu zituen: "Hamar egun egin genituen Finlandian, eta Estoniara ere joan ginen". Ortziarekin batera, beste lau lagun joan ziren Finlandiara: Bilboko Ruben, Oñatiko Jon, Donostiako Alex eta Sopelako Miren. "Ederto ibili ginen. Egubakoitz arratsaldean irten ginen Lovainatik, eta zuzeneko hegazkina hartu genuen Helsinkiraino. Gauean iritsi ginen, eta afaldu eta ohera joan ginen; a zer-nolako hotza egiten zuen!".

Hurrengo egunean, zapatuan, goizean goiz jarri ziren martxan: "Furgoneta bat alokatu eta 150 kilometrora zegoen herri batera joan ginen". Han, eskiko altuera jauziko eta iraupen eskiko txapelketa zegoen jokoan: "Altuera jauziko arrapalak inpresionatu egiten zuen. Gu Finlandiako selekzioa animatzen ibili ginen, baina Norvegiak irabazi zuen. Sekulako giroa zegoen txapelketan, baina hotz handia egiten zuen. Eskerrak vodka apur bat geneukan..."

Gauean Helsinkira itzuli ziren, eta gaueko giroa bizi izateko aprobetxatu zuten: "Jendea hotza zela iruditu zitzaidan. Diskotekak baino ez daude han, eta lauretarako dena itxita dago". Domekan Finlandiako hiriburuazagutzen ibili ziren: kale nagusiak, plazak, eraikin esanguratsuak... Astelehenean ere Helsinkin izan ziren: "Asko gustatu zitzaigun Helsinki. Erabat elurtuta zegoen, eta ikusgarria zen. Goizean gora eta behera ibili eta gero, arratsaldean izotz-hockeyko Finlandiako Kopako finalerdiak ikusi genituen. Hori ere ikusgarria". Azkeneko asteotan Gorka Ortiz de Mendibilek eman digu Finlandiako berri; orain, Ortziaren txanda da.

XABIER URZELAI



Ortzi eta lagunak, Finlandiako eskiztaileak animatzen.

"Helsinki polita bada ere, jendea hotza dela esango nuke"



Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.

amets
BAR

- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Sandwichak
- Hanburgesak

Enkarguak ere hartzen dira.

Otalora Lizentziaduna 23 - Tel.: 943 77 09 23

ZAHARREN ETXETIK

Hirugarren adinekoen sexualitatearen gaineko aurreiritziak ezabatu beharra

ARRASATE IRRATIA/IKER BARANDIARAN

Arrasateko Sexologia Zerbitzuko Eva Ruiz de Eginok eta Larraitz Arandok Arrasate Irratian egiten dute berba hilean behin. Maiatzean sexualitatea zahartzaroan izan dute hizpide, eta guk irratian esandakoa jaso dugu.

Aspaldian Sexologia Zerbitzuko lagunak herriko erretiratuen elkarteetan lanean dabilta, eta erretiratuekin bideo emanaldiak, kafe tertuliak eta bestelakoak antolatzen dihardute. Esaterako, maiatzean, azkeneko bi asteetan, Abaroa elkartearen egingo dituzte.

Orain arte hirugarren adineko lagunekin izan dituzten harremanetan, bi erreakzio nagusi izan dituzte. Gehienek esan diete dagoeneko pasatu dutela sexualitatearen garaia. Askok kojtorik egiten ez dutenez, uste dute sexualitatea ez doala eurekin. Gutxi batzuek, berriz, eskertu egin diete eurez oroitzea.

Arrasate Irratian izandako solasaldian, Arandok eta Ruiz de Eginok zahartzaroko sexualitatearen gaineko hainbat aurreiritzi ezeztatu zituzten. Lehenik eta behin azpimarratu zuten sexualitateak ez daukala adinik. Beraz, askoren usteen kontra, hirugarren adinean ere badago sexualitatea. Aditu horien esanetan, kontua da askok oharkabean gazteen sexualitate eredia jarraitzen dutela; eta hori okerra dela, adin bakoitzak sexualitate mota bat daukalako.

GOZAMENA, BIZITZA OSOAN

Arando eta Ruiz de Eginoren esanetan, pertsonaren bizitzak irauten duen bitartean sexu-bizitzak ere irauten du; hau da, gorputzak gozamena eman eta jasotzeko gaitasuna dauka bizitza osoan, modu desberdinean izan arren.

Oharkabean, gazteen sexualitatearen eredia kontuan hartzeko ohitura handia dago, eta beste edozein adinetako sexualitatea aintzat hartzerakoan konparaketak egiten dira. Aditu horien esanetan, konparaketa hori baztertu



ARRASATE PRESS

Hirugarren adina erotismoaren sasoia dela diote adituek, irudimena gehiago garatzen delako.

egin behar da. Are gehiago, gizonari, zahartzen doan neurrian, ez zaio zakila hain errez tentetzen, eta emakumeen bagina sikuagoa egoten da. Gazteen ereduko koitoaz gain, gauza askoz gehiago daudela gogorarazi zuten: ferekak, besarkadak, belarrian xuxur-

latzea, laztanak ematea... Horiek ere gozamina sorrarazten dutela, hain zuzen ere. Horrez gain, azpimarratu zuten hirugarren adina erotismo sasoia dela. Euren esanetan, gazte sasoian koitoaren gaineko presio handia egoten da, eta ematen du hori ez badago sexua-

litaterik ere ez dagoela. Aditu horien ustez, presio hori barik antsietate hori desagertu egiten da, eta irudimena gehiago garatzen da.

AURREIRITZIAK ALDE BATERA UTZI

Jende askok uste du hirugarren adinekoek ezin dutela gozamenik sentitu, gozamina genitalekin zuzenean lotzen dutelako. Adituen esanetan, baina, gozamen hitzak ez dauka zertan konnotazio hori izan.

Gaur egungo gizartearen, hirugarren adinean dagoen lagun batek bikotekidea badu, askok ez dute hori ondo ikusten, eta ez dute normaltzat hartzen. Bada, sexologoek eskatu dute halako aurreiritziak alde batera uzteko, betiko.

Hirugarren adinekoen sexualitatea ulertzeko, gazteen eredia baztertu

Sexualitatea gauza asko dira: besarkadak, ferekak, laztanak, belarrian xuxurlatzeak...



Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

Aretz
Taberna

Markole 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

Aitor
Belardenda

Osasuna eta elikadura

- Produktu dietetikoak
- Dieta pertsonalizatuak
- Aurpegi garbitzeak
- Masajista

Olarte 7 ARRASATE
943 79 90 43

LABUR

Kiroldegiko bazkarirako txartelak eskuragai

Maiatzaren 29rako SUDCek eta Udalak herriko erretiratuetarako bazkari erraldoia antolatu dute Musakolako kiroldegian. Dagoeneko eskuragai daude txartelak herriko erretiratuen elkarteetan. Bazkideek euren elkarteetara jo dezakete. Maiatzaren 20a izango da azkeneko eguna.

1936an jaiotako emakumeen urteroko hitzordua

Maiatzaren 22an, 1936an jaiotako emakumeek urteroko hitzordua egingo dute. 13:00etan meza izango dute San Juan Bataiatzailearen elizan. Gero, bazkaria egingo dute Musakola hostalean. Interesatuak Muruamendiaraz gozotegian eman beharko dute izena, eta 10 euro ordaindu.

San Isidroko karta joko txapelketa egin dute Musakolan

Musakolako erretiratuek, urtero moduan, San Isidroko karta joko txapelketa egin dute astean. Astelehenean, emakumezkoen zortzi bikotek briskan egin zuten; martitzenean, gizonezkoen hamahiru bikotek musean; eta eguaztenean, gizonezkoen hamasei bikotek tutean.

Erretiratuen afaria eta beste ekitaldi batzuk, asteburuan

San Isidroko jaien egitarauan, auzoko erretiratuetarako ekintzak antolatu dituzte. Besteak beste, gaur, egubakoitza, 182 lagunek afaria egingo dute Kataide jatetxean, 19:30ean. Afalostean, karta joko txapelketako irabazleei eta auzoko zaharrenei opariak eman go dizkiete.

LORAK

BELEN MAIZTEGI

Teleordainketa
24 orduko zerbitzua

Biteri etorbidea 13
ARRASATE
Tel.: 943 08 15 44

LORAK



ARRASATE
Txema Vela
Maiatzaren 19an, urtebetetzea. Zorionak! Susi, Unai eta Ametzen partetik.



ARRASATE
June Eguren
Maiatzaren 15ean, 27 urte. Zorionak, guapisima! Koadrilakoen partetik.



ARRASATE
Ane Aizpuru
Maiatzaren 10ean, 11 urte. Zorionak! familiakoen partetik.



ARAMAIO
Amaia Telleria
Maiatzaren 6an, 7 urte. Zorionak! Etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Ainhize Artetxe
Maiatzaren 13an, 6 urte. Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE
Nerea Garcia
Maiatzaren 9an, 9 urte. Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Jon Anduaga
Maiatzaren 20an, 5 urte. Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Ander Gomez
Maiatzaren 17an, 4 urte. Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE
Eider Ruiz
Maiatzaren 11n, 4 urte. Zorionak, *pinpilinpaxa!*



ARRASATE
Pascual Vitoria
Maiatzaren 17an, urtebetetzea. Zorionak, aitxa!



ARETXABALETA
Eli Vitoria
Maiatzaren 11n, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Unai Lopez
Maiatzaren 18an, 32 urte. Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Gentzane Lopez
Maiatzaren 13an, 33 urte. Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Rafa Alonso
Maiatzaren 17an, 37 urte. Zorionak! Iloba Beñaten partetik.



ARRASATE
Beñat Alonso
Maiatzaren 19an, urtebetetzea. Zorionak, potxolo! Aita-txo, amatxo eta etxeokak.



ARRASATE
Oier Ortiz de Mendibil
Maiatzaren 19an, 21 urte. Zorionak! Ea aurkitzen duzuen! Sonia eta Selena.



ARRASATE
Ane Usobiaga
Maiatzaren 14an, 12 urte. Zorionak! Aneren, amaren eta aitaren partetik.



ARRASATE
Mikel Mondragon
Maiatzaren 13an, 27 urte. Urte askotarako, *Mon!* Koadrilakoak.



ARRASATE
Zigor Zeziaga
Maiatzaren 15ean, 27 urte. Zorionak, *Txetxi!* Koadrilakoak.



ARRASATE
Iñigo Gutierrez
Maiatzaren 13an, urtebetetzea. Zorionak! Lagunen partetik.



ARRASATE
Jessica Aguero
Maiatzaren 16an, 16 urte. Zorionak! Laugarren mailako nesken partetik.



ARRASATE
Asier Leibar
Maiatzaren 8an, urtebetetzea. Zorionak! Etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Iker Agirre
Maiatzaren 13an, 12 urte. Zorionak, poxpolin! Etxeko partetik.



ARRASATE
Gorka Madinabeitia
Maiatzaren 12an, urtebetetzea. Zorionak! Familia eta koadrila.



ARRASATE
Aitor Hernandez
Maiatzaren 16an, 16 urte. Zorionak! Familia osoaren partetik.

Adi!
Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaiozu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia bueltatu egingo dizugu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Komeni da argazkia urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea.

EZETZASMATU



Non dago argazkian ikusten duzuen lekua?
Arrastoa: Arrasateko eliza bateko kapera da.

ARRASATE PRESS

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Gallo pasta
500 g

0,68€ 113 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

GLADYS HERNANDEZ endako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Gladys!
Galderen erantzun zuzena:
Leire Parra eta Isabel Aramendia.

ARRASATEKOHISTORIA

Ia hirugarren mailara igotzea lortu zueneko

'PEQUEÑA HISTORIA DEL...'/ J. LETONA

Erregional preferente mailan utzi genuen joan den astean Club de Fútbol Mondragon taldea, 70eko hamarkadaren amaieran, hain zuzen ere.

Hain zuzen ere, oraingo honetan 78-79 denboraldiarekin hasiko dugu kapitulua. Oso urte gogorra izan zen hura Mondrarendako. Batetik, erregional mailari eusteko nahikoa lanekin zebilen. *Bonba*-k taldea utzi zuen, kritika gogorrek entzuten ibili eta gero; haren ordez, Victor Oregi hasi zen entrenatzaile lanak egiten.

Horri guztiorri, Iturripen izan zen gertaera latz bat gehitu behar zaido. Mondrak Gasteizko Aurrezaira taldearen kontrako partidua zuen. Egun hartan, Iturripen elkartu ziren ikusleak asko haserretu ziren eta epailearen kontra egin zuten. Gogor kolpatu zuten. Horren ondorioz, Gipuzkoako Futbol Federazioak zigortu egin zuen Mondra. Gogor zigortu ere. Izan ere, Mondraren historian izan den zigorrik gogorrena ezarri zioten: itzuliko bost partidurri zioten: itzuliko bost partidurri zioten. Kontuan hartuta taldearen egoera berez ez zela oso ona, zigor hura ikusita bazirudien



78-79 denboraldian, Mondra taldeari historiako zigorrik gogorrena ezarri zioten, ikusleek epailea kolpatu zutelako.

'PEQUEÑA HISTORIA DEL FUTBOL EN MONDRAGÓN'

taldea ez zela mailari eusteko gauza izango. Baina ligako azkeneko partiduan libratu zen Mondra taldea, eta erregional preferente mailan geratzea lortu zuen.

Hurrengo denboraldian (79-80), hirugarren mailara igotzeko asmoarekin, ahalegin berezia

*79-80 denboraldian,
Mondrako jokalaria
Iñaki Herrero
Moreno hil egin zen
partidu batean*

egin zuen taldeak, ekonomikoki zein kirol arloan. Besteak beste, Pello Untzuetak hartu zuen taldea entrenatzeko lana. Kontuak kontu, ez zuten emaitza onik lortu, eta denboraldia tamalgarri samarra izan zen. Edozelan ere, erregional preferente mailaren

erdialde inguruan sailkatzea lortu zuen. Aipagarria da, era berean, denboraldi hartan gertaera triste bat bizi izan zutela Mondra taldekoek eta haien zaleek. Denboraldiaren hasiera zen. Iturripen, Mondra eta Hondarribia taldeak ligako partidua jokatzen zebiltzala, Mondrako jokalaria Iñaki Herrero Moreno hil egin zen futbol zelaian bertan. Haren omezez, hurrengo urteetan herri artean jokatu zuten txapelketari Iñaki Herrero Moreno Memoriala izena ipini zioten.

SASOIRIK ONENA

Arrasateko futbolaren laugarren aldiari dagokionez, 80-81 denboraldia izan zen onena. Berritoren Luis Lopez Diaz *Bonba*-k hartu zuen taldea entrenatzeko ardura. Taldea jokalaria gazteekin zegoen eratuta, guztiak ere, herriko harrobikoak. Hala, ordura arte moduan, mailari eustea zen helburua, baina taldeak indarra hartu zuen eta bigarren postua eskuratu zuen erregional preferente mailan. Eta ez hori bakarrik. Hirugarren mailara igotzeko partidua jokatu zuten Bizkaian bigarren lekuan geratu zen taldearen kontra, Zornotzaren kontra. Urte hartan ez ziren mailaz igo, baina bai hurrengo denboraldian.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko maiatzaren 14a / 108. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Gazte ugariren artean osatu dute Aramaioko gazteen taldea

U.M.

Gazte mordoak bat egin du Aramaion sortu berri den gazte-taldearekin. Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanblada (ATGA) izena ipini diote talde horri. Horrenbeste gazte elkartu direla-eta, orain, lokala eskatuko diote Udalari, batzarrek eta ekimenak egiteko.

50 bat gazte hasi da lanean Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladan. Horrek arazoa sortu die. Izan ere, orain duten lokalean, kultura etxekoan, ez dira kabitzen. Eta edozein ekimen egin behar dutela ere, Udalari zinema-aretoa erabiltzeko baimena eskatu behar diote. Gauzak horrela, ATGAK egin zuen azkeneko batzarrean erabaki zuten, beste gauza batzuen artean, beste bilgune bat eskatu beharko diotela Udalari.

UMEEKIN ANTZERKIA

Horrez gainera, eta Udalarekin elkarlanean, herriko San Martin jaiak antolatzen dabilta gazteak buru-belarri. Aurreikusitako aurrekontua dezente murrizta dela-eta, ekimen bereziak antolatzen dabilta, jai alternatiboak



Aramaioko 50 gaztek bat egin dute Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladarekin.

izateko eta dituzten errekurtsioak ahalik eta ondoen aprobetxatzeko. Hala, gazteendako musika-kontzertuak antolatuko dituztela, eta antzerki berezia antolatzen dabiltzala aurreratu digute. Antzerkiari dagokionez, herri eskolako umeekin lanean dabilta horretarako. Horrez gainera,

herriko elkartei gutuna bidali die jaiak antolatzen laguntzeko.

HARREMANAK SENDOTU

Oro har, euskara lantzea eta herriko gazteen arteko harremana sendotzea da Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladaren helburua. Horrez gainera, herriko elkarte-

ekin harremana sendotzeko ere ahalegin berezia egingo dute.

BESTELAKOEN LAGUNTZA

Gazteek Arrasateko gaztetxearen eta Otxandioko gazte taldearen laguntza dute bai taldea osatzeko, bai eta jaiak antolatzeko ere. Haiei eskerrak eman gura dizkiete.

Laster, esaera zaharren bertso lehiaketa izango da

U.M.

Txirritola Euskara Elkarteak ekimen berezia antolatu du datorren maiatzaren 21erako: esaera zaharren bertso lehiaketa. Bizkaian egiten den ekimena da, hemen sekula egin ez dena. Polita izan daitekeelakoan erabaki dute Aramaion gitea.

Algorta inguruan egiten dute esaera zaharren bertso lehiaketa. Zera da: ekimenean parte hartu behar duten bertsolariei esaera zaharren zerrenda ematen zaie. Bertsolariek euren artean banatu behar dituzte esaera zaharrok. Eta gero, bertsoen bitartez, esaera zaharrek banan-banan adierazi

behar dituzte, bestelako herritar talde batek esaera asmatzeko.

Ekimen horren berri izan zuen aramaioarren batek, eta hona ekaritzea polita izango delakoan erabaki dute herrian antolatzeko. Inguruan halako zerbitu antolatzen duten aurreneko aldia da.

TABERNAZ TABERNA

Hala, Aramaioko kasuan, 19:00etan hasiko dute ekitaldia. Herriko bertso eskolakoek, herritarrek eta trikitilariak parte hartuko dute ekimenean. Bertso eskolako kasuan, bi talde osatuko dituzte eta tabernaz taberna ibiliko dira, tokatu zaizkien esaera zaharrek bertsoen bitartez esaten. Trikitilarien laguntzarekin egingo dute ibilaldia.



Herriko trikitilariak ere parte hartuko dute esaera zaharren lehiaketan.

LABUR

Osoko batzarra izango da datorren astean

Datorren asteko osoko bilkuran landuko dituzten gaien artean, besteak beste, ekainaren 13ko hauteskundeetan lanean jardun behar duten aramaioarren izenak zozketa beharko dituzte. Betiko moduan, hauteskunde zentro bakarra izango da Aramaion: San Martin Eskola. Eta han bi hauteskunde-mahai ipiniko dituzte. Mahai bakoitzeko presidente bat, bi bokal eta haien ordezkioak aukeratu beharko dituzte. Beraz, bi mahaietarako, bederatzi lagun izenak atera beharko dituzte. Herritar horiek berehala jasoko dute abisua, eta gero, zazpi eguneko epea dute erreklamazioak egiteko.

Lau t'erdiko ETB kantxa lehiaketako partidu gehiago

Gaur, barikua, Lau t'erdiko ETB kantxa txapelketaren barruko partidu gehiago jokatuko dituzte herriko kiroldegian. 21:00etan hasiko dira. Hala, kadete mailan, Urrizalzik Martinezen aurka jokatuko du eta Peñasek Mendizabalena kontra. Eta 23 urtetik beherakoan artean Urrizalzik Castilloren kontra jokatuko du eta Erreak Landaren kontra.

Eskola arteko bertsolari txapelketetan buru-belarri

Batetik, bihar, zapatua, Aramaioko bertso eskolakoek saioa egingo dute Uribarriko elkartearen, afalostean. Arabako Eskola Arteko Bertsolari Txapelketaren bigarren kanporaketa izango da. Bestetik, datorren maiatzaren 22an, zapatua, 14 urtetik beherakoek izango dute eskola arteko bertsolari txapelketan parte hartzeko aukera. Legutianon izango da lehia, kultura etxean. Hain zuzen ere, idatzizko bertsoen txapelketako finala jokatuko dute 40 bat umeek.

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiako Eskualdea	945 43 01-67
Suhiltzailleak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoia duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BAÑERAREN PARTIDUAK

Beste astebetetz, emaitza onak ekarri dituzte etxera Bañerako bi taldeek: neskek Francisco de Vitoria taldeari 3-2 irabazi zioten; Bañerako ordezkarien esanetan, antzera samar jokatu zuten bi taldeek eta edozeinek irabaz zezakeen. Mutilen kasuan, berriz, 1-0 irabazi zuten, baina partidua jokatu barik; izan ere, aurkaria —La Milagrosa taldea— ez zen azaldu. Datorren asteburuan, berriz, neskek Fumikoni taldea izango dute aurrez aurre Artziniegan, 11:30ean. Eta mutilen etxean jokatu dute, Jesus Obreroren kontra, 11:00etan.

BARIKUKO ZINEMA

Edward Zwick zuzendariaren *El último samurai* filma emango dute. Tom Cruise, Timothy Spall, Ken Watanabe, Tony Goldwyn eta Billy Connolly dira aktoreetako batzuk. Gogoratu maiatzean saioak 22:00etan izango direla.

DOMEKAKO ZINEMA

Oraingo honetan, *Master and Commander* abenturazko filma emango dute.

Nortasuna sendotzen dihardu Ataka musika talde jaioberriak

U.M.

Orain dela gutxi Sakre taldea aurkeztu genizuen. Orain, herriko beste talde bat aurkeztuko dizuegu: Ataka. Ez daramate denbora luzerik talde moduan, baina dagoeneko igo dira taula gainera euren musika jotzeko. Halako gehiago egitea espero dute, gainera.

Ataka honako hauek osatzen dute: Martin Arriolabengoak (gitarra-jolea), Ibai Ormaetxeak (baxua), Iker Beitiak (abeslaria) eta Iker Agirrek (bateria-jolea).

Orain dela urtebete jaio zen Ataka. Iazko abuztuan. Baina taldea sortzeko ideia lehenagokoa da. Martinek gitarra jotzen zuela-eta, gainerako hirurekin bat egin eta hala erabaki zuten taldea sortzea. Martinek erakutsi die musikaren oinarriak eta dagoeneko euren kantuak eta guzti egin dituzte: "Gehienbat bertsoiak jotzen ditugu; gure kantu batzuk baditugu, baina gehienbat bertsoiak". Ramones, Los Violadores, Animales Muertos, Los Inhumanos... taldeen bertsoiak dituztela kontatu digute. Euren kantuen gainean, berriz, zera adierazi digute: "Hiru kantu idatzita ditugu, *intro* bat eta beste biren gaineko ideia ere badugu".



Aramaion ospatutako Lehenengo Gazte Egunean kontzertua egin zuen Ataka taldeak aurreneko aldiz.

Gaurkotasunean oinarritu dira euren kantuak idazteko. Kantuetako bat Udalaren eta gazte lokalen gainekoa dela esan digute; beste bat kanabisaren gainekoa eta hirugarrena, berriz, politikaren gainekoa.

Aramaioko I. Gazte Egunean estreinatu zen Ataka. Zera kontatu digute: "Jendea oso gustura

atera zen. Dena dela, aurreneko kontzertua izanda normala da, koadrilakoak zeuden..." Edozelan ere, taldekideek eurek ere kontzertuaren gaineko inpresio ona zutela esan ziguten: "Lehenengo aldiz izateko, txarto ere ez".

Bestalde, aurrera begira dituzten egitasmoen gainean, diote denborak duela azkeneko hitza:


"Orain ikasketak ere badaude, azterketak... Ahal denean ibiltzen gara taldean. Edozelan ere, orain jo egin behar dugu; gure kantu batzuk egin, eta jo". Horren harira, esan digute akaso herriko jaietan joko dutela. Bestela, kontzerturen bat antolatzeiko interesa duenak hortxe dauka beste talde bat aukeran: Ataka.

KZGunearen egutegia aldatu egin dute, Aramaioko eskaeraren arabera

U.M.

Aramaioko KZGunea ez da herritar askorik joan orain arte. Hori ikusita, inguruko KZGuneen koordinatzaile Berex Ortiz Aramaion izan da, KZGunearen etorkizuna aztertzen. Hala, Aramaioko zentroan bestelako plangintza egingo dutela kontatu digu berak.

Aramaioarren bat zein beste nabigatzera joaten da herriko KZGunea. Baina, bestela, ikastaroetan eta ez da jende askorik ibili, batez ere azkenaldian. Hala kontatu digu Berex Ortizek. Gauzak horrela, eta KZGunearen erabilera egokitu nahian, beste plangintza bat abiaraziko dute Aramaioko KZGunean. Zera kontatu digu Berex Ortizek: "Zerbitzu berekin segituko dugu, baina ez da tutoretza iraunkorrik egongo. Hamabost egunean behin pertsona bat etorriko da begiratzera ea jendeak KZGunerako izena eman duen; zein ikastarotan izena eman duen... Eta horren arabera, jendea baldin badugu, ikastaroak



Liburutegiaren ordutegi berarekin zabalduko dute orain KZGunea.

egingo ditugu, eta bestela, ez. Gutxieneko talde bat sortu beharko da ikastaroak egiteko. Eta ikastaroen ordutegiari dagokionez, eskaeraren arabera erabakiko dute noiz egin ikastarook. Horrez gain, informazioa laga dugu KZGunean: zein ikastaro

ematen ditugun, izen-emate orriak...". Izan ere, KZGunea erabiltzeko dauden baldintza baka-rrak bi dira: 18 urtetik gorakoa izatea eta KZGunean izena ematea. Horrez gainera, zera ere gogorarazi digu Berex Ortizek: "Baditugu arauak; ezin da txa-

teatu edo jolastu, adibidez; ezin da sexuarekin lotutako web orri-rik ikusi... Ez da zentro ludikoa. Informazioa bilatzeko eta irakaskuntzan oinarritutako zerbitzua da".

Zentroaren plangintza aldatzeaz gain, Aramaion dauden zortzi ordenagailuetatik lau eraman egingo dituztela ere esan digu Berex Ortizek.

Hala, hemendik aurrera honako egutegia eta ordutegia izango du KZGunea: egunero zabalik, liburutegiaren ordutegi berarekin: 17:00-19:30era. Liburuzaina arduratuko da zentroaz. Hala, zelanbait, zentroa Udalaren ardurapean geratuko da. Baina ez da bestelako aldaketarik izango, KZGuneak betiko eskaintza egiten segituko du-eta: Interneten nabigazioa eta ikastaroak. Eta ikastaroen artean, zerrenda luzea dago aukeran: Internet erabiltzeko oinarritzko ikastaroa, justiziaren gainekoa, nekazaritza, irudi digitalen tratamendua, bidaiekin lotutakoak... Guztiak ere, eta KZGunearen gainerako zerbitzuak moduan, doan dira.

ERRETRATUZAHARRA

Fagorren
publizitatearen
garrantzia

Fagorren gainean berba egingo dugu segidan. Fagorrek bere produktuak saltzeko landu zuen publizitate motaren gainean, hain zuzen ere. Izan ere, 60ko hamarkadan hasita, lan handia egin zuen alor hori lantzen. Lan horren emaitzak ikusi besterik ez dago. Besteak beste, sari bat baino gehiago eman zioten egindako publizitate kanpainengatik.

Ondoko argazkiari begiratzan badiogu, 1966ra salto egingo dugu. Ulgor lantegiak ordurako hamar urte beteta zituen eta Fagor markako produktuak oso ezagunak ziren Estatuan. Ezaguna zen, era berean, Fagorren publizitatea. Guk argitaratu dugun argazkiaren kasuan, Estatuko leku guztietan izugarri hedatu zen asmatutako berba hori, *Fagorices*, eta oso iragarki deigarria izan zen hura. Bi urte lehenago ere lortu zuen Fagorrek jendearen arreta piztea. Kasu hartan, autobus berezi bat egin zuen. Sukaldeak-eta zeramatzan autobusak, erakusleiho moduan ipinita. Honako leloa aukeratu zuten: *DO-RE-MI-FAGOR*.



Eta Estatuko herri askotara eraman zuten autobus hura.

Urteek aurrera egin ahala, halako kanpainak egiten segitu zuen Fagorrek. 1968rako, Fagorren produktuak aitzindari ziren Estatuan. Hala, Fagor Internacional izeneko taldea sortu zuten, Espainian lortutako arrakasta

nazioartera zabaltzeko asmoarekin. Lantegi berriak inauguratu zituzten (1970ean, Garagartzakoa). Eta 1972an sariak jasotzen hasi ziren: lehenengoa, Europan aitzindari izatearren; bigarrena (74an), publizitaterik onena egitearren eta esportazioetan aitzindariak izatearren; 75ean, Espainiako Marketin

Aitzindaria saria eman zioten... Eta gaur egun, Kalitatezko Q sari bat baino gehiago eskuratu ditu, besteak beste.

Argazkia eta informazioa: *Fagor XX*
Aniversario izeneko liburua
Urtea: 1966


NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Ospitalea
berritzeko
baimenik ez

ARRASATE PRESSko 68. zenbakian, orain dela 14 urte, Eskualde Ospitalea izan zuten berba. Orduan, Udalaren Gobernu batzordeak ez zuen onartu ospitalea berritzeko eskaera. Osakidetza anbulatorioko 3. solairuan eta baita ospitaleko etxabea ere obrak egin gura zituen. Baina arrazoi urbanistikoak zirela-eta, Arrasateko Udalak ez zituen lanok onartu.



≈ 1990 ELA sindikatuak ere kritikatu zituen Osakidetzaaren asmoak. Hain zuzen ere, eraikin berria eskatzen zuen sindikatuak.



2004 Ospitalea berritzeko lanak aspaldi egin zituzten, eta ez zuten eraikin berririk egin; zegoena berritu eta handitu egin zuten.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

ESKORIATZA
Tfno 714345
ERRETEGIA
MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astlehenetan itxita
ESKORIATZA

Jili Jili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



BERGARA-MONDRA

Bergararren eta arrasatearren arteko derbia GOITB-n



Ikustekoa!

BERGARA-MONDRA
Begarako laguntzaileak: Pol-Pol eta Nahikari Taberna
Arrasateko laguntzaileak: Basati, Bengoa, Branka, Ederra, Ezkiña,
Hostal Musakola, Iamai Kafe Antzokia, Iluntz, Irati, Iturriotz, Itzala,
Lora, Monté, Okoretegi, Zirola.

Zapatuan, maiatzaren 15ean
Agorrosin futbol zelaian, 17:00etan.
19:30ean GOITBn

Lapurdi kaleko dendariak Zigarrolako jai zoriontsuak opa dizkizuet



abian

FISIOTERAPIA ZENTROA

*Ondo pasa
Zigarrolako jaietan!!*

Lapurdi 9-11'behea

Laster zabalik!

virginia.L

ile apaindegi mistoa



Lapurdi 3 - 943 79 65 65



GAINDEGI

- Eguneko menua
- Kafetegia
- Plater konbinatuak
- Entsaladak
- Ogitarakoak
- Hanburgesak

Lapurdi 4 Tel.: 610 733 503

L
a
s
t
e
r

Z
a
b
a
l
i
k

kuxxkur

OKINDEGIA

OGIA *Laster zabalik!*

DELICATESSEN
PASTELAK

AURRETIK PRESTATURIKO JAKIAK

URDAITEGIA